

**Bingen Aizkibel**

**IPUIN ABERKOYAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Ipuin Aberkoyak*, Aizkibel'dar Bingen.  
Grijelmo-Alargun-Semien Irrarkola, 1917.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00527.htm>

AIZKIBEL-DAR BINGEN

# **IPUIN ABERKOYAK**

1917

Grijelmo-Alargun-Semien irrarkolean  
Arbolantxa 1 — ABANDO'N

*EUZKEL-LAGUNTZA-rî*

# ARTZAIN-ARTIAN

Mendi-mendiko txabola txiki baztertu baten, artzain bijak bixi-ziran, amil eta arru-artian. Txiro-txiruak ziran eta mendirik-mendi, euren artaldia zaintzen, iñarduten eben beti. Txar-txarra zan, ziñez, euren bizkerea mendijetako bakartalde ain ixukor atan! Ezeben beste lagunik euren ardi zurijak eta, noxian-bein, agirtzen zan otso gosetiren bat baño. Biar-ba, urrun, beste artzañen batzuk egozan, euren makillai ekitten.

Eta ziñeskatxa ba-da be, alkarrekin bixi-arren ezeben alkar ondo artzen. Bijetarik bata artzain-txu umezurtza zan, *Txiki* ixenduna, ta beste artzain andijaguaren ardurapian eguan. Aren gurasuak, be, artzañak ixan ziran mendi atantxe, ta bertan azi zan ume gaxua, ardi zurijak, otso baltzak eta gixon azkarren artian. Baña, bein, *Txiki* bere gurasuen txabolatik urten zan, bere ardiak zaintzen, negu gogorreko egun ederbigunan. Eta jazo zan mendi andi zurijaren ton-torretik, aldats-bera, edur-narra jausi zala, artzañen txabolatxubak batez narreztuten. Eta *Txiki*

bere artaldiarekin bigurtu zanian, bere gurasuak edur-estalgi lodi-pian etzauten ziran.

Bakarrik ikusi eban bere buruba ume gaxuak, bere ardiak be, mendijetaz ziar iges-egindda, an eta emen sakabanatu ziran-eta; ta bijotza atsebagez beterik, Jaungua baño beste lagunik ezebala, asi zan mendirik-mendi ibildden, txabolarik-txabola, ogi-pizka ta mattasun-billa.

Artzañak, txiruak ixan-arren, bai-eutsaen emon, gogo onez, ogija; sabairik ez, baña. Bai-eban idoro gorputzaren alikaturea, baña gogua-rena, urrian, betiko galdu eban.

Azkenez, luzaro ibillitta gero, *Basurde*-ren txabolara eldu zan. Onek otseintzat artu eban, lanetan laguntzeko, bera be bakarrik bixi-zan-eta; ta *Txiki* antxe lotu zan, gixon bakan a atsegin etxakonarren.

Ta barriro asi zan ume gaxua bere artzaintzaz.

Egunian-egunian, edur-egunetan be, artaldia zaintzen eban, mendirik-mendi, oyanik-oyan, bein baño geyagotan otso uzuben artian; baña ezeban mutikuak bilddurrik, eta gaba elduta txa-

bolara bigurtzen zan, mendi-abestiren bat abestuten.

Beti bat.

Askotan, eguzki odoltsuba mendi-ostietan jasten zanian bere azken-izpijak ibar-sakonera bidaltzen, geure artzaintxubak begizten ebala, otoi samurra bere ezpanetatik Goiko Jauna-gana igoten zan, bere guraso-aldez eskatzen; eta sarri, otoi-egijala ulu uzuba entzuten zan, eta lastertxe otsua agirtzen zan antxe.

Mutil azkarrak erail ebazan otso gosetubak! Bein baño geyagotan il-agiñian bere buruba ikusi eban. Baña etziran otso arek bere laguna baxen ixukorrak!

*Basurde* eretxon lagun a otsuak baño ixukorragua zan, ziñez. Mendittarrak lez sendua; oyanetako aberiak lez uzuba. Basotarra zan bera, arrutza estu-estuban jayua. Garrasta baxen andija zan bere gorputza, gustiz inddartsuba, azal gorriduna, ule-luzia, begi-zolija, ipuin zarreko *Baso-jauna* lakua.

Iñok ezekijan artzain basotar aren egizko ixena; orok *Basurde* gora ta bera ereisten

eutsaen. Baña *Txikik*, uste-bage, olan eretxi eutsalako, bere buruba il-zorijan ikusi eban.

Iñori jaramon-barik bixi-zan. Egunoro urteten zan artalde txikijarekin eta oyan-oyanan sartzen zan. Gero jesarri aretxaren bian eta aizto luzia ataurik zugatzari aitzoka asten yakon. Artzain-txu gaxua, artaldeko ardiren bat galduzkerok!

Sarrittan otu yakon mutillari lagun ain gaizto ori betiko laga, ta txabola baztertu ixugarri atatik iges-egittia; bilddur-zan, baña, ori egitteko. Ta aitz-artian eskutauta eguan mendiko Neskutza-ri amaika bidar egin eutsazan lenagoko aldi zoruntsuban bere gurasuakandik ikasi ebazan otoyak.

Azkenez, Urtzi-k gura-ixan eban bixitz illunilluna alattu, alditxurako ixango zala be.

Egun baten, egunoro lez, begi oztindun artzain gastia artaldia zaintzen joyala, mendiz-mendi, oyanez-oyan, amillik-amil, larri-larri bere gogua, bere zorigatxaz oldozten, uste-barik, aitz-artian eskutauta, beste txabola bat aurkittu ta atian agura zar-zarra jesarritta ikusi eban.

Lenengo geldu zan umia, agurea ikusirik, baña berialaxe baretu ta beragana arin juan zan.

Agureak *Txiki*-ren zorigatxa jakin ebanian, errukijak jota, bere aizkidetasuna eskiñi eutsan.

Eta ordutik aurrerantzian sarri-askotan artzain gastiak artzain zarra ikertu edo ikusi eban. Bai-zan zoruntsua *Basurde* uzubagandik iges-egindda, agurearen aizkidetasuna-billa jauten zanian.

Askotan, txabolako atian jesarritta alkarekin egozala, artzain zarrak edesten eutsazan *Txiki*-ri antziñeko gauza gomutagarriak, artzaintxubak, abua zabalik, entzuten eutsazala. Edesten eutsazan menditarren edeskijak eta ipuin polit-aberkoyak, batta be Anboto-ko Zorgiña-ren edeski arrigarrija. Ta ipuñak aldian itxitta edestijatzaz itz-egitten ebanian, artzain txiro zarrak antziñeko erkabea irudijan. Orduban bai-ziran sutsubak bere itz aberkoyak, aberri gaxuaren alde itz-egitten ebanian.

Laster, baña, amattu zan betiko artzain bijen zorijona. Bein, *Txiki* luzaruegi agurearekin egonki, txabolara belu eldu zan. Basurde-k itandu eutsan zegattija, ta erantzunak ase ezebalako gogor astinddu eban. Baña egun gitxi-buru belu eldu zan barriro.



Zerozer susmau eban gixon zur-zur arek: origattik bijaramonian *Txiki*, beti lez, txabolatik urten zanian, bere jarrai juan zan. Eta artega-barik artzain bijak alkarrekin itz-egitten egozala, agiri zan bat-batez, ta aserrez gorrittuta, *Txiki* astinddu gura-ixan eban, eta olan egingo eban agurea artetu-ezik.

Ordutik galazo eutsan txabolatik urtetia berakin ixan-ezik, eta egunik asko igazi zan gastiak bere aizkide zarra ikusi-barik. Azkenez, baña, agureak ikusteko guraritsu, iges-egin eban. *Basurde*-k jakinki asmo ixugarrija sortu eban. Ixilldu zan, baña; ta *Txiki*-k au ikusirik sarrijago ikertuten eban aizkidia.

Egun baten, *Txiki* itxartu zanian bakarrik ikusi eban bere buruba. Egun-sentija zala *Basurde* bertan ez-egotiak jo eban, eta artega-artegea ixututen asi zan.

Berak zegattija ezekijala, txaboleari illun-illun eritxon, eta iges-egitteko asmua artu eban. Ezpai eguala, bat-batez agiri zan *Basurde*. Bere agirikixuna ixan zan ixukorra! Arnasa-oska, zapa baltza itxulastuta, ta begijak suba jarijoten lez etorran. Eskumean mendi-aiztua eukan, odolez

gorrittuta, ta uzubaren barrez barre-egijan. Sartu zan txabolean eta bazterran aizto odolaba jaurtirik, *Txiki*-ren aurrez jarri zan eta begiztu eban, begirakun ain ixukorraz ume gaxuak mendiko otso gustijak beragana etozala uste ebal. Oyu andija egin eban eta gustiz bilddurtuta mendijetara iges-egin eban, *Basurde* berari jarrattubarik.

Arin-arin joyala, artzain zarraren txaboleaz gomutau zan. Nun aizkide oberik? Eta ara erdu zan gustiz nekauta. Obe litxakijo elitxatian elduko! artzain zarra bidera urten etxakon-eta. Billa-tuten asi zan, eta txabola-erdijan odolez gorrittuta illotzik idoro eban.

Igarri eban *Basurde*-ren asperkunde ixukorra, ta negarrez ittota, jausi zan bere aizkide zanaren onduan, mendijan ixan eban aizkide bakarraren onduan.

Barriro, begi oztindun artzain gaxo-gaxuak bakarrik, ikusi eban bere buruba, mendi-mendijan; txabolarik -txabola erruki-ogija billateko biartuta.

Mendittar errukitsubenetan ogijori idoro eiban.

Eta otso uzubak sarrittan bidera urten ei-yakozan. Bera, baña, etzan otsuen bilddur, one-tarik uzubenatzaz azke zan-eta.

Baña bere gurasuen eta edeski ain polittak edesten eutsazan artzañaren mattasun-mattasuna ezaban egundo aurkittu.

# SABIN

—Sabin! Sabin! —dei-egin eban ameak, eta bere abots zolija basetxe zabaleko gelaetan galdu zan. Iñok ezeban erantzun.

—Sabin! Sabin! Nun ete-ago?

Eta orain ume-abotsak erantzun eban urrun

—Bai-nua, ama!

Berialaxe, sei-saspi urtedun morroskotxuba agiri zan antxe. Bilddur-bildduraz etorran, amearen agirakea itxaroten daun lapurtxu gastia lez. Bere begijak barruko bilddurra erakusten eben.

—Zer gura, ama?

—Nun enguan eskutauta, satorra bere zuluan lez? Zegattik ez-ete-ua kalera?

Umia ixilddu zan.

—Ataz jolastuten yiñarduben ire aizkidiakin, zegattik ezago?

—Eztot gura, ama.

—Zer gero? Zegattik ori?

—Eurekin egon gura enazalako.

Au esanik negar-malkuak bere begijak ezko-tu ebezan.

—Bai-nayuan susmetan i eure aizkidiakin ez-egoteko zerbait edo-ebala. Eta zer dokala-ta eurekin ezaz egon gura? Gatxen bat egin ete-dauske?

—Ez, amatxu ori.

—Zer, ba?

Umia,barriro ixilddu zan.

—Erantzun egik! —ameak esan eban gogor.

—Ixeka-egitten dauste! —azkenez esan eban ume gaxuak, eta asi zan negarrez.

—Ixeka, diñok?

—Bai, ixeka-egitten dauste eurekin nagone-tan.

—Olakorik! Zegattik, ba?

—*Sabin* ixena ei-dodalako.

Umiaren negar-malkuak gettu ziran. Amea ikaratuta eguan. Ezeban ulertzen bere semiaren ixena ain barregarrija zanik. Umekerijak baño etzirala uste-eban, eta bere semiari, mosu samurra egiñik, esan eutsan:

—Ua, gixaxo ori, ta eurei ez jaramon. Esatsek bekaitz edo-dauskela, ire ixena eurenak baño polittagua dokalako, ire attitta on-onak ipiñi eus-kan-eta.

Eta barriro mosu-eginki, basetxetik urten-eragin eutsan.

Basetxe-aurrian eguan landa zabalán sei edo sáspi mutil, Sabin-antzedunak, jolastuten ziran. Asto deretxon jokuan iñarduben eta bestien bian eguanaren gañian ijutika ebiltzan. Eguzkijak euren arpegi bigunak argiztuten ebazan. Mutil orrek urduri ta bizkorrak ziran, alberrijetako basetxietan jayuak. Euretárico baten bat jausten zanian bestiak barreka asten ziran.

Ordubantxe agiri zan Sabin. Mutil gaxua bildur-bilddurrez etorran. Bere lagunak ikusi eben eta alditxu baten itxi eben euren jokua. Gero eurekin ez etorteko zegattija ittandu eutsaen. Berak, baña, ezeutsen erantzun.

Asi ziran barriro jolasten. Sabin-ak, gura-ta-ez, euren jokuan lagundu ebazan. Aldi luzetxuba igazi zan bakian. Baña Sabin bere aizkidien ixekak berrentzuteko bilddur-zan oindiño. Oldozkun arekaz artegatuta, bein bere burubaz aiztuta lurrera jausi zan. Bere aizkidiak barreka ta barreka asi ziran, bere lepotik ixeka egitten ebela. Sabin, ori ikusitta, jagi zan arin eta bere aizkidiaiesan eutsen maratz:

—Nori ixeka-egitten dautsozube, kirten orrek?

—Ori ittauna! Iri, ba! —erantzun eutson batek.

—Niri iñok etxaustak ixeka-egitten, eta zubek ezelan bez.

—Bai-dautsozube entzuten? *Kokua* ba-litz lez!

—Kirten ori!

—Ni bai-nok kirtena, baña i az... *Sabin!* Aupa Sabin!

Ume-artian barre-purrustadea entzun zan. Alkar begiztu eben eta danak batera asi ziran:

—*Sabin, Sabin.* Ja, ja! *Sabin!* Ori ixen politta!

Ume gaxuak arpegija lotsaz gorrittuta eban. Alde batez asarriak eta bestez lotseak bere miña lotu eben. Bere ixena aldeztu gura-eban, baña bakarrik esan eban:

—Euria baño polittagua... *Pelagio!*

Baña ixekeak gettuten zirala, ta bere ixena aborik-abo ikusijaz negarrez asi zan eta basetxera iges-egin eban.

Atartian bere attittea aurkittu eban.

Agureak, negar-egijala ikusiki, ittandu eutsan zegattija:

—Attitta matte: guzur-guzurra da, ezta?

Agureak ezin eutsan ulertu. Sartu zan base-txean, jesarri zan eta bere illobeari jesarri erazo eutson bere belaun-gañetan.

—Tira, ba. Zer dok, Sabin mattioi?

—Ez, ez!... Sabin, ez! Nik eztot *Sabin* ixenik! Ezeban ulertzen.

—*Sabin*, gaizto orrek ereisten dauste. Baña guzur utsa da. Ezta, attitta mattioi?

Orduban bai-eban susmau agureak zer zan, eta illobeari bekoki-erdijan mosu-egin eutson. Gero ittaun-ittaunka jakin eban jazo zan gustija.

Baña etzan ikaratu. Bere illobearen ixena ixenik ederrena zan bere ustez. Ain ederra zalako gixon gaizto batzuk, ez umiak, gorroto eutsaen. Berak bere illoba kutunari ixen ori imiñi eutsan, eta ordutik aurrerantz illobeari ereistia zan bere poz-poz. Ez, ixen mattia etzan barregarrija!

Eta agura on-onak beso-artietan jaso eban Sabin, eta gero, bai-ziran ederrak esan eutsazan gauzeak! Gixon andi batetzaz itz-egin eutsan, beste aldijan bere ixen illezkorra ixan ebanatzaz.



Gixon ospetsu ak bere erri gaxua berbiztu eban. Eta gero esan eutson abertzaliak, ixen ori entzuten dabenian, pozez ta miñez negar-egitten dabela: pozez, euren aberrija gaizkatu ebalako; miñez lasterregi il yakelako. Agureak itz-egijala bere begijak suba jarijoten lez eukazan. Umiak, abua zabalik, entzuten eutsan. Agurearen agotik *Sabin* ixena sarrittan urten zan. Bera gixon ospetsu aren aizkidia ixan zan; berak espetxian ikusi eban bere aberrijarren nekausten; berak bere ezpanetatik aberri-deya entzun eban; eta berberak, azkenez, gura-ixan eban bere illobeari ixen ederra imiñi, geruago, aberrijarren aldez gogoz aleginddu ledintzat.

Illobeak, ulertu ete-eutsan? Iñok eztaki, baña attitteak amattu ebanian mosu samurra egin eutsan.

Bijaramonian, basetxe-aurrian eguan landa zabalán, barriro mutillak jolastuten iñarduben, bilddotsak mendijetan lez. Euren artian Sabin be eguan baña orain aurpegi-alai ta bijotz-atse.

Eta barriro mutilletariko batek, Sabin negarez ikustiarren, oguzi edo esan eban ixen ospetsuba.

Barriak entzun ziran.

Umia, baña, asarratu-barik, erdijan jarri zan, eta pozez beterik esan eutsen:

—*Sabin!* Bai. Au da nire ixen ederra! Attitteak imiñi eustan. Gixon andi-andija, orain Goyan dagonaren ixen illezkorra da. Ixenik ederrena, ta mattiena be. Geure gurasuak entzuten dabenian, pozez ta miñez batez, negarrez asten dira. *Sabin*, bai, eretxi egistazube *Sabin!*

Eta buruba bigurtu ebanian agurea ikusi eban atetik entzuten eutsala. Bere besuetara jo eban. Euren aurpegijak batu ziran, eta euren bijotzak be. Gero mosu samur-samurra entzun zan.

Mosu ori entzunik Abertzale gorenguaren gogua poz-pozez bete edo-zan.

# ESKARBAGIA

Negu gogorra zan. Egun axe-otz edurtsu baten, bidiak edurrez beterik egozala, basetxe zarreko atian ots iradukorrak entzun ziran.

Entzutiaz basetxequak geldu ziran, eta etxe-jaunak eten eban bere seme adijai asabaen elez egitten eutsen edeski aberkoya. Ziñez, etziran arek basetxera iñorbat juateko eguraldi ez iker-taldi egokijak.

Otsak berrentzun ziran, len baño gogorra-guak, eta semerik gastienak bilddurrez ittandu eban:

—Nor ete-da, atta?

—Etxekijat nor dokan ez nor ixan layetteken —erantzun eban atteak— baña dokana dokala, geure atian jo yok eta idegi biar-yautsoguk.

Eta umetariko bati idegitteko aginddu eutsan.

Atiak opo-gañian bira-egin eban eta ataz bidazti gaxua agiri zan, gose-otzez kikildduta, erdi-ortosik, janzki zarrez jantzitta, edurrez bete-rik, loi-loi.

—Zoruna etxion bedi!

—Urtzi lagun! Zer gura-do zu? —etxe-jaunak itandu eutsan.

—Bide illun-edurtsu orretan bidekatutako bidazti gaxua naz, ta gau ixugarrija dala-ta, zaindoki-eske natorkixube —bidaztijak erderaz esan eban.

Euzkotarrak ziran basetxeko jaubiak, eta euzko-semiak errukijorrek beti izan dirala-ta, arrotza ondo abetaldu eben.

—Adijon zator, bidazti gaxuoi, suba ta bazkarija gertu dagoz-ta.

—Bai; geukin bazkalduko dozu, ta eguraldi txarra dala-ta, geure basetxion lotuko zara.

Lastertxe arrotza, janzki barrijakin, sukaldian eguan. Bittartian umiak, eskaratzeko baztertzu baten batzauta, arrotzari begizka, adi-adi, egozan.

Bere itxurea, baña, lenendik, etzan umien begikua ixan, eurek zegattija ezekijela. Gixon gastia zan, begi-baltz-urduri, arpegi-zail, gorputz makalduna, itxuraz arrotza. Bere elia batez-be etzan euzkotarren ele zar ederra, erdereba baño.

Iñok ezeutsan bere ixenatzaz, ez bere bixike-reatzaz ittaundu. Zana zala basetxe-barru eguan eta andik barrero urten-arte aizkidetzat artu biar. Berak bez orretzaz ezaban itzik esan.

Ataz ostotsa entzuten zan gero ta ixukorrago. Noxian-bein tximistak etxe-barruba argittuten eban. Basetxe-kuak otoi-egijen, bidazti gaxuen alde z Urtzi-ri eskatzen.

Apaldija eldu zan. Mai-onduan gustijak jarri ziran. Apaltzen asi baño lenago, gustijak zutunik, etxe-jaunak otoi-egin eban, bestiak erantzun eutsaela, euzko-basetxietan antziñeko ekandu ona dan lez. Bidaztija be, biar zalako, zutundu zan, baña ezeuzan otoi-egitteko bere ezpanak zabaldu.

Au orok begiz-jo eben, umiak batez-be, ta eurotariko bat bere geldasuna erakusten asi zala, agureak ikurka ixillik egoteko aginddu eutsan.

Aparija amattu zan. Barrero eskarrak egindda, bakotxa bere lekura juan zan. Etxeko andereak kendu eban maya ta gero sutonduan jarri zan. Umiak, lo-gura zirala, ama-ondora jo eben. Etxe-

ko jaunak, aulki nagusijan jesarririk, bere sakele-  
tik erretako odiñua atarau eban.

Arrotzak azkengo sagardontzija utsittu eban  
eta, eskar-ordez, ona bere itz mergatzak:

—Erri madarikatu au! Noz emendik aldendu-  
ko ete-naz?

Etxe-jaunak, ulertu-eziñik, begiztu eban.

—Guraritsu nago emendik juateko!

—Zer diñozu? Laga gura-dozun errija, zein  
ete-da?

—Auxe. Zein ixan, ba?

—Zer dala-ta laga gura-dozu?

—Erri txarragorik eztagolako.

—Ez aitzu gero geure etxion zagola.

—Nor nazan jakin gura ete-dozu?

—Ez, beintzat. Etxe onetan ogija emoten da,  
nori emoten yakon jakin-barik. Eztogu eskarrik  
eskatzen; bai, baña, geure errijari dagokijon  
lotsea.

—Azketsi, baña egija bai-da. Emen eurija  
baño eztago; edurra ta leya baño eztagoz. Eguz-  
kija ezta iñoiz urteten. Errittarrak be eztira begi-  
kuak, esku-estu ta gaiztuak baño.

Agurea ikaratuta eguan, ziñetsi-eziñik. Umiak euren ama-onduan, itz-egitteko bilddurraz.

—Zer diñozun bai-ete-dakixu?

—Egi utsa baño ez, mingotsa dala be.

—Ezta ori egija.

—Ta, ganez, eztiñodana. Irain, gorroto, iñar-tzi... Bai-dot esan: erri txarragorik eztago.

—Baña, zer dala-ta deritxozu ori? Etxe-atiak itxi yatzuzan? Ogija kendu eutzuben?

—Ez, emon eusten; baña lortuteko ixerdija-ren ixerdija bota, ta nekiaren nekia jasan biar-ixan neban.

—Lan-egin eta nekatu-barik, nun jaten da ogija?... Baña bai-dot ulertzen. Eroso ta nekatu-barik idoroko ebelakuan zoruna-billa ona etorri, ta uste-eben baño gatxagua zala ikusirik euren etorkundia gaiztetsi ebenetarikua edo-zara zeu be. Ezta?

—Zorijak eratorritta eldu nintzan erri oneta-ra; eta, ziñez, emen oña ezarritta berialaxe, neure errittiko ametsak, amets gozuak, burutik igesi yatazan. Zorigatxak jota, neure aberrija itxi biar-ixan neban, eta neure zorunaren egarrija asebetetako asmuaz erri onetara jo neban. Baña

neure zorija dan mingotxa!; ortze odeyetaz estalduba, lur sasi-sastrakaetaz betia, ta gixon zeken, burukoyak baño eneuzan aurkittu. Edoze-lan eta edonun lan-egin neban; eta amaika neke jasanda txindditza txikitxuba borobilddu neban, neure errira, erri onegaz antzik be eztaukan neure errira bigurtzeko.

—Zeure errija edo-dan eztitsu, ekarkor, aberatza!

—Neure errijan eguzkijak odei-barik argi-egit-ten dau beti. Ango ortzia beti dago oskarbi, baso-zelayak beti loratsu, gixa-emiak beti alai.

—Zeuk diñozun baxen ederra ba-da, zegattik itxi zeban zeure erri ori?

—Zori gatxak...

—Bai, zori gatxak —bere asarria ezi-eziñik etxe-jaunak esan eban— erri onen zori gatxak, geuriak, zeu, beste asko lez, eratorri zenduban, bere emoyak gozartuta gero bera gaiztesteko. Zuben bijotzetan ez-edo-da eskar-ona sortuten. Etorten zarie ona, zegattik ukatu!, zuben ortze garbija, zuben lora usaintsubak, zuben baratz ekarkorrek eta zuben aberkide alayak-arren, zuben etxietan gosiak ildden zengozalako, ta



uste-zeben antxe etzeukena ementxe idoroko zebela. Eltzen zarie ta beriala geu baño gorago igon gura-ixaten zarie, ta ogipide gustijak artzen dauskuzubez. Baña ezta ori txarrena; gura-zebe-na lortu ta ziskuba borobildduta, zuben etijetara bigurtzeko aldija eltzen yatzubenian, gaiztetsaz ta ezetsaz ordaintzen dozube egin eutzuben ona; ta bere eurijaz zuben txindditzea gettu eban ortziari euritsuba deritxozube; zuben bixitza irauteko alikaturea emon eutzuben lurrari idorra; gosez ta eukijezaz il etzedixantzat, euren etxietako atiak zabaldu eutzubezan gixonak dollorak dirala esaten dozube...

Etxe-jaun zarra ixilldu zan bere asarria agertuta gero. Eskaratz andija ixillik eguan. Urrun-urrun ostotsa oindiño entzuten zan. Bidaztijak buruba makurtu eban lotsaren lotsaz: egija eskarbagia baño altsubagua da.

Bittartian ekatxa urundu zan eta oindiño edurra ixan-arren bidiari jarrattuteko galtzoririk ezeguan. Jagi zan bidaztija, bere janzkija atondu eban, eta azkenez, agur-egiñik basetxetik urten zan, bere errirako bidiari barriro jarratturik.

Orduban, agureak, jazo zana ixillik ikusten egozan bere emazte ta semiai, dei-egin, eta leyo-ziar bidaztija erakutsirik, nausikiro esan eutsen:

—Egunen baten bidazti eskarbage orrek, edo orretariko bidaztiren batek ogi-eske geure etxe-atian joko ba-dau, bere gosia asetu, Urtzi-ren gurea da-ta, baña ez-itxi etxe-barruban sartzen.

# GOYAN EDURRA

Mendija gora, bai-dua pozik, bai arintsu Teles gastia! Arpegija alai ta oñak iradu, arkatxik-arkaitz, amearen billa diñardun oreña-antzera bai-dua Teles bizkorra.

Uso zuri-antzez mendi garai-tontorran dagon *Mendieta* basetxerantz begirakun lera-sutsubak zuzentzen dauz. Basetxera urreratuten dala, bere bijotz-zauzkadeak arindduten dira. Bertan neskatilla lirañak joranez beragaz oldozten daula igarten dau. Ori dala-ta, axe aztundun uri baltzetik urten eta, nekatu-barik, mendi-tontor argijetaraño igoten da.

Eta gero ta ariñago dua, bide leun eta luziak itxitta, bide zidor-oyartsubetaz-ziar, gogo-pozak gorputzaren nekia aitzu erazoten dautsala.

Azkenez, ekin eta ekin bere gurarija lortzen dauna lez, Teles gastia bere mattaliaren abira eltzen da.

Mendiko lorarik ederrena, neska polit apala basetze-ondotxuban dago, bastar (solo)-lanari ekiten. Buruba jaso ta Teles berari begizka daku-

sanian, bere begi urdiñetan mattasun-izpija dargi.

—Zer dokala-ta ator, Teles?

—Ez neuri ittandu, Edurne. *Mendieta* basetxe onek eratorten nayan. Gero, be, uri-aldian bai-az ikuskatxa.

—Nik gura bai, baña... enok buru-jaube.

Ittunak bere bekokija tximurtzen dau. Gero diño:

—Ezintzan etorri biar.

—Zer donala-ta?

—Neure attea... (ta au esanik bere ezpan gorriak dar-dar dagije), neure attea... bai-dakik nor dokan.

—Etxian ete-yagon?

—Ez; baña etorri yattekek.

—Bayetorna, ba. Etxakin, ala? Eta etorritzero be, nik ekingo yautsonat atzaltzen. Nik esango yautsonat bere alabea donan mattagarrija, atteak seme-alabaen zoruna billatu biar-yonala.

Urittarrak eta neskatilla lirañak dagijen mattasun-eleztea luzaro dirau. Bat-batez bekoki-ja illundu ta neskatilleak diño:

—Neure atteak eutzaz esan yostakana, egija ete-dok, Teles?

—Zer esan dausna, ba?

—Esateko bilddur nok, guzurra edo-dok-eta.

—Ez; esan, esan.

—Ikaskintza barri-zoruakaz euzkotarren artian gorrotua eretten baso-errijetaz ibilli; aberri ixuna matte-ixateko, egijazko aberrija, gorrotau; ta arrotzak eta nire attearen alderdija ezes-ten yuezanetarikua azala esan yaustak... Egija ete-dok, Teles?

Neskatilla ixiltzen da erantzunaren begira; baña Teles-ek itzik be eztiño. Adikatuta dago. Neskatileak ekitten dautsa:

—Guzurra dok, eztok, Teles?

—Aberrija matte-ixaten euzko-anayai irakasteko etxetik urten eta or-emen azi ona eretten yiñardunenetarikua bai; orretarikua non ni, zorunez.

—Bai-ete? Gaizto orretarikua az?

—Gaiztuak ez, Edurne, abertzaliak baño. Ire attearen ustez guk eretten yonagun gorrotua, mattasuna, aberri-mattasun utza baño ezton.

Eta Teles gastiak, mattasunaren mattasunaz, Aberri gaxo aitzuba gogoz ta sutsu goralduten dau.

Edurne-k begijak-betti ta bijotza-otz entzuten dautsa. Noxian-bein ziñeskatxa bere aurpegijan darakus. Amaika uste ixun bere atteak sortu erazo dautsa Teles-en itz sutsubak bat-batez ulertzeko.

Oindiño barriketea bai-dirau, baña orain mattasun-atzarik eztauka.

—Eu be orretarikua?

Eta bere itzak, lenago leratsubak, edurra baxen otzak dira oin. Attearen alabea, azkengo gudatian guda-buruba ixan zanaren alabea!

Guenez, ezer lortu-barik, alkarri agur-dagitsae.

—Eutzaz enayuan ori uste, Teles. Bai-dakik, baña. Aurrerantzian *Mendieta* basetxera etorri gurako ba-az, etorri atteke, nire attearen bayetzaz ta be. Baña orretarako uste oker orrek itxi biarko dozak.

Abertzale gastiak mendiz-bera dagi. Eztua, baña, aurpegija-alai, ez oñak-iradu, ez arkatxik-arkaitz ama-billa diñardun oreña-antzez. Bijotz-

bijotzan arantza zorrotza dau: mattasun bi alkarren aurka.

Bat-batez Edurne-ren attea aurrian dakus.

—Bai-yakijat nundik atorran. Mozollua gaime-lurratxari lez nire etxe-inguruka abil. Baña bein eta betiko diñoskat: aberri ta bakaldun-atxin dozakan uste gaiztuak eztozak *Mendieta* base-txian sartuko. Bai-dakik.

Eta Teles-en bijotza lettuten daun begirakun mergatza egindda, mendiz-ziar aurrera dagi.

Azkenez gaste gaxua urira eldu ta ittun-atse-ge etxian sartzen da. Uriko keyak bere bularra ittoten dau; ta axe garbija gura-daula, mendi-goirantz bere begijak dagije. Laño-multsuz estalduta mendija agiri-ez dago.

\* \* \*

Egun gitxi-buru gaste-talde bat bai-dua mendirik-mendi abesten. Edur barrijak mendijak zuri-ttu dabez. Au dala-ta gaste-talde andija urittik urten eta axe otzaren bilddur eztala, ortik dua mendirik-mendi. Bai-dira mendi-gallurretara elduten; bai-dira ikuskixun ederraz geltzen.

Abertzaliak dira. Mendijan dagozala, basetxe-atietan joten dabe abertzaletasun-azija sartuteko. Eta euzko-abesti zar-barriak, abesti aberko-yak, abesten dabez.

Teles eurekin dua. Lengo egunetan guda gogorra sortu zan bere bijotzan. *Mendieta*-ko neskatilla berak matte-ebana! Bere Aberri gaxua berak laztan-ebana! Gero, be, bere bakaldun lur-jua ta gudarozte gastien zalekerijaz Edurne-ren attea zan temati ta buru-gogorra.

Eta bijetarik bat, Aberrija ala Edurne, autetsi biar.

Aizkidiak urrengo ibilgundia iragarten etorri yakozan. Lenenguan etzala jua gura esan eban; geruago, abertzaletasuna zala-ta, bayetz esan eutsen. Baña *Mendieta*-aldez-ziar ez-juateko esan eutsen.

Eta or duaz, mendirik-mendi, euzko-gastiak, ikuskixun zuri-ederrakaz gelduten, eta azi ona edonun eretten. Euzkotar gastiak dira eurek, axe aztundun urijetatik urten eta mendi-tontor argi-jetaraño, bixitz-axia artzen, igoten diranak.

Baña eguzki-argija itxungitten asten da, ta atzera egin biar. Batzuk diñue *Mendieta*-ondoz



juateko, bidia laburtzen. Teles-ek eztau gura, baña bestiak geyago dirala, *Mendieta*-ondo duaz. Teles, bakarrik ez lotutiarren, gura-ta-ez, eurekin dua.

*Mendieta*-ra eltzen dira. Basetxe-atian Edurne ikaratuta dago gaste-talde andija etorten dakusala. Bere atta-billa bilddurrez dua. Baña gaste-artian Teles dakus.

—Teles!

Gastia aurrera dagi. Azkengo irabakija artu dau.

—Emen non, Edurne.

—Nortzuk dozak orrek?

—Ire attearen ustez, ikaskintza barri zorua-kaz euzkotarren artian gorrotua eretten baso-errijetaz ibildden donazanak. Ikusi egiñaz, Edurne; ikusi ta entzun egitsoen. Eta esan gero orren gaiztuak donazan.

Urre-urrian gaste-taldia «Itxarkundia» abesten dau. Mendiko lora politta ixillik dago, abesti aberkoyak bere gogua sutetan eztaula.

Attea, zaratea dala-ta, atera urteten da. Bere bijotzeko naibagia aurpegijak darakus.

—Eu emen, Teles? Eta gorroto-abestijak abesten yuezan orrekin? Neure itzak aitzuta, neure basetxera etorri az? Alde, alde emendik bizkor, bestelan!...

Eta bere ixakerea, lengo gudatian Karla bakaldunaren guda-buru ospetsuba ixan zanian lez, ixukorra da.

Teles, gotas-eske, neskatilearen begijetara beriak bigurtzen dauz, baña neskatileak, begijak itxirik, buruba beste aldera dagi.

Bijotz-atsebagerik samiñenaz mutil gaxuak atzera dagi, ta talde urruti-ostez bai-dua.

Urreratuten dala gero ta argijago abesti ederra entzuten dau. Gastiak abesten dabe:

Goiko mendijan  
edurra dago  
erreka-aldian  
ixotza.

Eta buruba bigurtzen daula, edurra, ziñez, goyan bai-dagola dakus.

# ITURMENDI-KO ZORUA

*Iturmendi* basetxetik urira sarrittan jasten zan, eta gixa-emiak itxal-itxalaz abetaltzen eben.

Bere zoritxarra zala-ta, emakumiak erruki-yakozan; gastiak, egunoro ikusitta, ardura-ezaz begiztuten eben, eta agura-atsuak bera ikusirik burubak aldera egitten ebezan, eurentzako ikuskantz ittuna bai-litzan.

—Zorua! Bai-dator zorua! —mutiko-neskatuak, urrun ikusirik, oyu-egitten eben, eta ikurka alkarri deika, zorua elduten zala, aldera-egin eta adi-adi, ixillik, ixeka-barik, berari begizka egoten ziran.

Andi, zailtsuba zan; uledija baltza ta lasaya, agiñak zuri-zurijak, begijak zoli-urdurijak ziran, suba jarijoten lez. Arin-arin ibildden zan beti, iradu bai-litzan, eta bere ixakerea bakan ixukorra zan.

Ezeban iñorekin itz-egitten, edo itz-egiñezke-ro, bere itzak sentzun-bakuak ziran. Bere estarrittik, baña, barre-purrustada bakan luzia noxian-

bein urteten zan, irri-purrustadea. Bera entzunik agura-atsuak belarriak bilddurrez isten ebezan.

Egunian-egunian *Iturmendi* basetxe zurittik, subak erreta etxe-ondakin batzuren onduan eguan *Iturmendi* basetxetik jatsi ta oyar-zidorrak-ziar urijan sartzen zan. Geldittuteka txadonera juan, sartu ta bazterren baten jesarritta, irudijanez otoika luzaro eguan, eta gero bide berbertaz basetxera atzera egitten eban.

Bera zala-ta gauza bakan-bakanak edesten ziran. Ezin eban txapel gorriak ikusi bere gogua bilddurtu-barik. Bere basetxe-onduan egozan etxe-ondakiñen aurrez ezin zan igaro, jazokun txarren baten bilddur ba-litz lez. Surik txikijenak iges-eragitten eutson, batta kebidien subak be, ta edesten zan, urtoro, Deun-Jon-gaban, mendiko sutzarrak illundijak argittuten ebezanetan, basetxeko bazterrik illunenan sartu ta oge-zapijaz eskutauta, antxe luzaro egoten zala.

Bai-zan zoro-zorua Marte, *Iturmendi*-ko zorua!

Au ta be, bere lepotik barre-egin-barik, emakumiak erruki-yakozan; gastiak ardura-ezaz begiztuten eben; agura-atsuak burubak aldera-

egitten ebezan, eurentzako ikuskantz ittuna bailitzan, eta mutiko-neskatuak adi-adi, ixillik, ixeka-barik, berari begizka, egoten ziran.

Aldi atan neu urijan bixi-nintzan eta zorua egunoro ikusten nebala, jakin-gureak zirikauta, jakin gura-ixan neban zorakerijaren zegattija, batta gixa-emiak yakozan itxal-errukijarena be. Ta bein nire aizkide zar baten etxera juan nintzan. Aizkide ak urijan antziñetik jazotako jazokun gustijen barri eban; berari, ba, ittandu neutsan.

Nire gixonak esku-artietan eukan lana itxi, burubari atz-egin, intziri-egin eban eta, azkenez, astiro, arira joteko bidia billatuten lez, edesi eustan zoruaren edestija, nik iñoz-ez-iñoz entzun neban edestirik negargarrijena.

\* \* \*

Anai-arteko guda gogorraren aldi ittuna zan, Euzkadi-ko lurra euzkotarren odalaz gorrittuten zan aldi ittun-ittuna. Ezeguan attarik, ez seme-rik, ez anairik, arerijo-talde bi, pizti gosetijak lez, alkarren aurka baño.

Aldi atan Marte bere guraso ta nebearekin bixi-zan *Iturmendi* zarran, gaur etxe-ondakiñak baño eztan *Iturmendi* zarran. Amar urteduna zan neskatilla, ernai zur zolija. Bere gurasuak asko mattetan eben bera... Gudatia asi zanian bere nebea, ogei urtedun gaste errutsaba, azarkerizalia, *baltzen* gudaroztian sartu zan, usteidien artian ontsu ta bixijenetarikua agertzen zala. Attea be usteidia zan, baña zarregija gudakatzeko; au zala-ta asko eban arerijuak jakitteka bere usteidiai urgaztiaz.

Aldi atan uriya artegatsu eguan. Biztanlerik geyenak, gastiak batez-be, karlatarrak ziran eta Karla-ren alde izkillubak artu ebezan, uri baria guda-zelaya bigurturik. Ija egunoro albo-urijetan *baltzak* agirtzen ziran, biztanliak asaldaurik. Arrezkero dana zan bilddurra, dana naspilla, izkillubak artu ta areyo-billa juan; areyuak, baña, beti iges-egin eban bestiak eldu-aurreko.

A zala-ta ezeben urikuak begi onaz ikusi Marte-ren nebea *baltz*-gudaroztian sartutia ta bere atteari asperkude gogorraz zematu eutsaen. Berak ezeban jaramon eta usteidiai urgazten jarrattu eban.

Zori aldakoya egun aretan karlatarrentzat aldatu zan. Bein albo-urijetan *baltzak* bestietan baño geyago agiri ziran eta urikuak iges-eragittentzen urten ziranian, gottubak ixan ziran, apurtuta burustuta bigurturik. Agattik asaldauta egozan eta areyukanako gorrotua andijagotu zan. Aspertu gura-eben, zelan ezekijeta.

Orduban *Iturmendi* basetxiaz gomutau ziran. Antxe bertantxe, uri-goyeneko basetxe zarran, euren zoritxarra zala-ta barreka, gentzaz bixizan areyua, *baltz*-artian semia ebana, batta, susmetan ebenez, beste taldiari urgazten eutsana.

Ezeben geyagorik biar-ixan. Euren arteko gixon gaizto batzuk, edonun ixaten diranetari-kuak, asmo ankerra artu eben. *Iturmendi*-ttar gaxuak!

Eta gau baten, Marte urittik basetxera joyala, *Iturmendi*-aldatza igotian, bere estarrittik etzi-oyuba urten zan, goyan sutzar andija, garmendija lakua ikusijaz.

Arin-egin eban gixaxuak, arin bijotza-ausi, joran-joranez, baño etxera eldu zaneke sutaurik ikusi eban, eta etxiari biraka txapel gorridun batzuk dantza ixukorretan.

Etzi-deika asi zan; negar samiña egin eban; iñok ezeutsan jaramon. Orduban, oñazez alaka, gudari bategana juan zan eta besoz oraturik sutzarrera bultz-egin eutsan, esanik:

—Ene atta! Ene ama! Gaizkatu egixubez!

Baña, erantzun-barik, barre-purrustada anker-ixukorra entzun zan.

Auzokidiak eldu ziranian belubegi zan. *Iturmendi* basetxe zarra auts utza zan. Etxe-ondakin-artetik jaubien gorpuzkin erriak atarau ziran.

Marte bazter baten, itxura bakanaz, agiri zan. Kikildduta eguan, uledija azkatuta, begijak-zorrotz, eta bere estarrittik barre-purrustada itxal bakana urteten zan.

Gudatia amattuta, bere nebea urira bigurtu zanian *Iturmendi* zar-onduan *Iturmendi* barrija iragi eban. Berton Marte gaxua artu ta aurreran-tzian gudaketan ez sartzeko abintza egin eban.

Marte azi ta sendotu zan, baña etzan bere zorakerija amattu.

\* \* \*



Au da nire aizkidiak edestu eustan edesti tamalgarrija. Orduban ulertu neban zer zala-ta zorua ikusirik emakumiak erruki yakozan, gas-tiak ardura-ezaz begiztuten eben, mutiko-neska-tuak berari begizka, adi-adi, ixeka-barik egoten ziran, eta agura-atsuak buruba aldera-egitten eben, eurentzako ikuskantz ittuna bai-litzan.

Edestija amattu-ondoren zorua bera geure ondoz igaro zan. Arin-arin joyan, beti lez, uledija lasai, agiñak zuri-zurijak, begljak zoli-urdurijak suba jarijoten lez.

Barreka joyan, barre anker-ankerraz, barre ittunaz, abendaide-iralliak gaiztesten lez.

# MENDIKO GURUTZA

## I

Gorroto-eutsan, ziñez. Berakin iñoz aurkitzen ba-zan buruba maratz bigurtzen eban eta bere aurpegijak barruko atsebagia erakusan. Bere ustez gixon txatxarragorik, dollorragorik eze-guan iñun-ez-iñun. Bijotz-bijotzez ezesten eban. Bein baño geyagotan bere zanetan odola erretan zan gixon ikusi-eziña jo-gureaz. Saltzallia! Alder-kide gurenatarikua ixanda alderdija itxi ebana! Gorrotau ez?

Au ta be beste aldijan aizkidiak ixan ziran, benetako aizkidiak, gixadi ogendi onetan gitxi diran lakuak. Lenagoko euren aizkidetasuna aborik-abo ibillija zan. Billaldeko bide- zelayak sarrittan ikusi ebezan Peli ta Andoni aizkide bijuen ibiltze ta jai alayak.

Baña ori beñola zan, usteide ta alderkidiak ziranian, euren alderdijak gertetan euzan jai gus-tijetara alkarrekin sutsu juaten ziranian. Baña

azkenez egi-izpijak Andoni-ren buruba argiztu eben eta bere bi jotza asi zan Aberrija mattetan eta bere aldez gogoz lan-egiten. Ordurarte gus-tiz bidekatuta galdu eban astija irabazi gura-eban. Eta ori ixan zala-ta alderdija ta alderkidiak be itxi euzan.

Onek ezeutsaen aldakuntzea azketsi. Peli, aizkiderik on eta sutsubena zala-ta, bestiak baño zorrotzago minddu zan. Bere bijotzan lengo aiz-kidetasuna gorrotorik bixijena bigurtu zan.

Andoni, be, minddu zan Peli-ren gorrotuaz, ta bere aldakuntzea atzalduteko, berak ikasittako egi aberkoyak ulertu-erazo gura-ixan eutsazan, baña Peli-ren lereak bere adimena illunduten eben eta Andoni-k ezeban bere gurarija lortu. Areyotu ziran.

Eta Peli-k arrotz-ikurriñari jarrattu eutsala, Andoni-k aberri-aldez gero ta adoretsubago lan-egin eban.

Augattik Peli-k Andoni iñoz aurkitzen ba-eban buruba bigurtu ta bere aurpegijak barruko atse-bagja erakusan, bere zanetan odola erretan zala lenagoko aizkidia jo-gureaz.

Andoni-ren bijotza alaz betetan zan. Berak ezeutsan gorroto, baña Peli-ren ikusi-eziña zala-ta ittun eguan.

## II

Aspaldittik uri txikiko biztanlien odola asalde-tan zan. Karla bakaldunaren aldeztalle gudako-yak urdurittuta egozan areyuen atxin, onek, bes-tiak gura-eben baño geyagotan, ziran bizkorra erakusten ebelako. Kartalarrak euren areyuai eutsien gorrotua erakusteko eretija billatuten eben.

Orrilla-igande atako arratsaldian uriko zela-yan artega-atzea agiri zan. Txistu-dantzean iñar-duben dantzari-taldiak urduri-samar egozan, eta gustijen barruban bilddurra sortzen zan. Noski, goguen asaldatia zala-ta, beste egunetan jazoten etzana jazoko zan. Gero, be, alderdi bijetako notiñak euren alderkidiakin batzaltzen ziran, zelai-bazter bijetan blidurik. Arratsa urreratzen zala urdurija andijagotuten zan. Orrattiño, eka-txa etzan asten. Baña txistulariak bere iñarkuna

amattuta berialaxe, bitzubek alkarri urreratu yakazan, ija alkarregaz nastau zirala. Laster irañak eta zemakitzak abuetatik urten ziran, eta gero gustija nastau zan, zelayan makillaka ta ariñeketea egiñik.

Peli antxe eguan. Burrukea itxirik, alde bate-tik bestera ebillan, erbi-txakurra erbijaren billa lez. Multsu-artian iñor billatuten eban. Alperrik baña: Andoni ezeguan antxe. Urrian, iges-egin eban. Baña berak nun-edo-nun idoroko eban, eta aspertu be bai.

Burrukea amattu zan, alkar jo ta juaz danak nekatuta, gurendea norena zan jakitteka, bako-txa bere etxera juan zanian. Peli be aizkide batzukin etxera joyan, areyua idoroteko itxarua galduta, ta bere aizkidiai antziñeko alderkidiaren bilddurkerija edesten.

Baña onen etxe-aurrez igarotian leyuan ikusi eban.

—Ataz makillaka diñardubenian etxian egotia dan ona! —esan eban, Andoni-k entzuteko eraz. Onek ezeutsan jaramon.

—Zer diñok, azar-errutsu orrek? —jarattu eban berari zuzendurik— zenbat zauritu ete-doza?

—Jaun-goikua-ri eskarrak bat-ez-bat —erantzun eban Andoni-k—. Egiñen txar orrek etxok neure barruba zikintzen.

—Geugaz errukija ixan az, eztok?

—Eta erruki natxatzube oindiño. Erruki-barik, zer dogokixube, ba, zuben gorrotuak dozakala-ta auzokidien odola ardura-barik ixurten dozube-noi?

—Ori barrija! Ire itzak-arren ire egikereari zur-arduratsubegija yeritxoguk.

—Eta neuri zer zuben eritxijak?

—Geure eritxijak, ez, baña bai, beintzat, geure makillak.

—Adi, Peli: bai-yakijat zer billatuten dokan. Baña dokana dokala ire gurarija eztok lortuko. Entzun, nire onuba: Itxi egikera txatxar ori ta aizkidiak gayadixan.

—Ni eure aizkidia, koldar orren baten aizkidia? Iñoz-ez-iñoz.

—Itxi naik, ba, gentzaz.

—Izten aut, bai, bilddurraren bilddurraz zutik ezin azala egon yakustalako. Baña barrero alkar ikusiko yuagu. Bijar, arratsan, Mendiko gurutzanduan eure begira nayagokek. Antxe bertan geure eztabaidea erabagiko yuagu. Ez uts-egin, ba, lotsea gustiz galdu ezpa-dok.

Andoni-ren buruban asmo bat sortu zan.

—Mendiko gurutzanduan esan dok? Tira ba. Anxe egongo nok ni, gura dokan legez.

—Bijar-arte, ba.

Andoni-k leyua itxi eban eta Peli bere lagunakin irriz ta barreka aldendu zan.

### III

Mendi-sollan, artzañak, burubak-azke, billaldeko zelayetara bedarra jaten artaldiak eruaten dabezan bide-ertzan, gurutz motza, lerden eta bakar jagitten da. Donetasun eta askitz-usañez betia dirudi, ta baso ixillan ittun-lañuak estaltzen dau. Untzorrija betik gora edatzen yako, ta bere orri orlegijetaz arrizko gurutz jaizten dau. Sarrittan, txioka urreratzen yako txoritxuren bat

eta leun-leun bere ganian jarritta mattasun-  
abestija egitten dau. Bere onduan baso-loreak  
azten dira. Ittun-laño eskutabak mendi-sollan,  
lerden eta bakar jagitten dan arrizko gurutz  
motza estaltzen dau.

Gixa-emiak bere-ondoaz igaroten diranian  
itxaldo txapela eranzten dabe ta euren bijotzeta-  
tik otoi samur apala igoten da.

Bijaramonian, ittunduba betetako, Peli-k,  
aspertu-egarriz Mendiko gurutz-era erdu zanian,  
Andoni aurkittu eban gurutz-oñan belaunbikatu-  
ta. Lenengoz atometako gertau zan, baña ekan-  
du donia gomutauta, berak be txapela erantzi ta  
otoi apala egin eban.

Otoya amattu-ondoren, bijok zutundu ziran  
eta aurrez-aurre euren burubak ikusi ebezan.  
Peli-k ixillunia ausi eban lenengoz, maratz-  
maratz esanaz:

—Emen nok, ba. Bein eta betiko amattuteko  
guraritsu nayagokala diñoskat. Ointxe ikusiko  
yuagu eure aste gaiztuak aldezen mutilla azan.  
Ni eure salkerija aspertuteko gertu etorri nok.

Andoni-ren aurpegijan atsebagia agertu zan,  
baña ezaban erantzun.



—Ixillik ago? Oin, be, azan zur-zurak eure miña lotuten yok? Damu-dok ona etorrijaz? Egiña egindda. Gertu adi, ba.

Eta atometako eraz jarri zan. Andoni zirkiñik bez egin-barik iraun zan. Gero astiro esan eban:

—Oindiño lereak itsututa ago, Peli? Ire adime-na estalduten yuan illuna orren baltza ete-dok?

—Itxi txonitz orrek eta jo yagijagun arira.

—Tira; gura-dokan lez egin daikek, eta eure gurarija inddarraz ba-da be egiztu daikek. Baña lenago, adi.

Eta besua Peli-ren lepo-gañian bigunkiro irasoten, onek erantzun baño lenago, gurutza erakutsirik, esan eutsan:

—Gurutz ori bai-dakusk? Mendiko bakartalde onetan eztiñosk ezer bez? Bere itxura ittunak ire barrupiarri ta bijotzari, etxautsek ezer esaten?... Adi ondo: bera ikusijazko gomuta alegiak! Odola eurrez jarijoten yagok. Gomutau egik noztikua dokan. Gudate ankerra baño lenago etzuan. Gudate-ondoren irailtz ixukorra geuri gomatau erazoteko or yagok. Emen anai gaste bik euren bixitzak galdu yuezan: gudakeak itsututa etxuen alkar ezautu, ta euren ezpataetaz alkarri bijotzak

zulatu yeutsaezan. Euren senidiak gurutz au iragi yuen, berau gomutauta, gerokuak anai-asarriak baretu yegijezantzat. Eztok entzuten yíñokana? Bai-yirudik, ba, lenagoko aldi illuna, euzkotarrak, arrotz-ikurriñak aldeztuten alkar birrindduten yuen aldi illuna agertzen yoskubala. Eztok entzuten yíñokana? Bai-yirudik, ba, aldi zatar atan il eta jausi zuazan gustijak, bertaz itz-yagijeta, ta gaiztesten yuezala Aberrija odolez gorrittu gura yuenak. Eztozak bere esakun mingotsak entzuten? Alberrijetako notiñak bai-yuezak entzuten, bere ondoz igarotian itxalez txapela erantzi ta otoi-egitten yuek-eta. Otoi, bai, toki onetantxe, gudaka-garrez itsututa, alkar ezautu ez-ta, alkarren bijotzak zulatubaz euren bixitz gastiak galdu yuezan anai gaxo aen aldez.

Andoni ixilli zan; bere esakunak bero-sutsu-bak ziran.

Peli, begijak-betti, ixillik entzuten euzan; bere bijotzaren zauzkadeak entzun al-ziran.

Ixillunia-ondoren, Andoni-k, azkenez, esan eban:

—Oin gogaldu egik egingo dokana. Gogaldu egik, au lako beste gurutz batek, lengo aizkide

bik, girneak itsututa, geidiaren irakatsija artu-  
ordez anai bijok antzartu gura-ixan yuezala, noti-  
ñai iragarri yagitsekala, gura-dokan.

Ixillune luzia ta larrija. Peli, buruba-betti irau-  
ten zan. Bere barruban, girneak eta biarrak alka-  
rren atxin iñarduben. Andoni-k esana barru-  
barru egin yakon.

Laster erabakija artu eban. Begijak jaso  
euzan eta lengo aizkidiarenak jo ebezala, poza  
bijotz-bijotzan sortu yakon.

Itz-egin gura-ixan eban, baña ezin, eta uste-  
bage eskuba eskiñi eutsan. Laster bere aizkidia-  
renaz estutu zan, eta bijok mattero alkartuta,  
andik, mendiko gurutz motzaren ondotik, bijotz  
abertzale bijuen otoi ta abintz zintzuak goira-  
egin eben, txoritxu polit batek, gurutzan jarritta,  
mattasun-abestija egitten ebala.

# LIDE

## I

Lide zan uriko neskatillik ederrena: Anbotogana burestundetan daun edurra baxen zurija; begijak oztin-oztiñak, oztija bera antzartuten lez; aurpegija-gorri, gorputza-lerden, apal, on, bera-berea zan, ziñez, Mendiarte-ko neskatilla.

Gaxua, goxetik egunoroko lanera juatian, Lide, Mendiarte basetxetik jatsitta, usulla buruban, lerden-lerden, urreko iturrira joyala, bidian aurkittuten euzan lugin gastiak. Gaxua, bai, bera ikusi ta bertantxe edonori bijotza beratuten yakon-eta. Eta nok, bijotz-bakua ixan-ezik, matte ez begi oztindun, gorputz matte-usaindun neskatil lerdena?

Baña Lide politta baño geyago bai-zan: ona be, politta baxen ona. Egarrittubak itturri garbijaren otsa entzuten daben pozaz, entzuten eben zorigaiztunak Lide ixena. Edonun ittunari alde-eragin eta alaya eratorten eban.

Onez ganera, aizkidiakazko bere ixakera alai-barrixuba, agura-atsuakaz itxal-apala, gurasuakaz ixil-egizkorra, baserritarrakaz ona, umiakaz kutun samurra zala-ta, gura-ta-ez, matte-ixan biar.

Eta mattetan eben, ziñez. Aizkidiak, billaldietako neskatil gusti-gustijak, agura-atsuak, umiak, gurasuak... orok matte-eben; matte ez? Eta: baserritarrak be matte-eben, bera ikusijaz bijotza-alai edo ittun lotuten ziran baserritar gastiak.

Uriko on, matte, gotasa zan Lide.

## II

Aspaldittik, baña, bere begi oztiñak len baxen argijak eztira. Eztabe beñolako matte-suba jarijoten eta negar-malkuak bustitten dabez. Lengo irribarria bere ezpanetan eztagir; aurpegijak, barriz, atsebagia darakus. Betazalak zurbilddu dira; urretxindorra ixilli da...

Txistubak eztau alattuten, eta, ulertu-eziña dana, beñola txistu-otsak zirikauta igittuten

lenengua ixaten zanak, ointxe bera entzutiaz iges-egitten dau, usuak tiro-otsa entzunaz lez.

Bai; Lide ezta lengua. Ezta beñolako neskatil barritxu alaya. Bere gogo ederra ta bere bijotz berea bakarrik dirauz; eurak dirala-ta Lide oindiño ezagun da.

Zer jazoten yako neskatil polittari? Au da orok ittanduten dabena. Baña bat-ez-batek ezta-ki zer dan atzalduten. Au ta be ezer bai-yako jazoten. Gurasuak galdu dauz, ala? Ez; urtiak makurtuta, baña inddartsu, basoko aretxak legez, basetxe zarran oindiño bixi-dira. Euren alabearen alegia dala-ta, artega dagoz.

Egun baten basetxian sartuten ikusi eben, begijetan negarren atza ebala. Zegattija ittandu eutsaen, baña bera, erantzun-barik, bere gelara juan zan. Ordutik dago olan, eta bere gurasuen alegiñak-arren ittun-atzak eztau bere aurpegittik alde-egitten.

Gexorik ete-dago? Gogoz-edo bai, gorputza osasuntsuba da-ta.

Beragana juaten dira, eskatu ta agindduten dautsae ittunaren zegattija esateko, baña eran-

tzun-ordez, begijak beratu ta negarrak aurpegi zurbilla bustitten dau.

Ezin geyagorik jakin. Eta au ta be zer-edo-zek Lide-ren bijotza mindduten dau. Bere gorputza be gexotuten asten da; gogua aspaldittik il-zorijan lez dauka.

### III

Lide gexo-gexorik dago. Egun batzuk dira oian etzunda dagola. Gurasuak, atsebagez beteorik, euren alaba bakarra jaboteko Urtzi-ri deskatsoe. Baña Urtzi-k euren eskarija eztaula entzuten bai-dirudi, ta Lide gero ta gexuagotuten da.

Auzokidiak egunoro erduten dira bere osasunatzaz ittanduten, eta egunoro be, ittun-ittun atzera-egitten dabe, beñolako lorea igartu-agiñian dagola ulertu dabelako.

Oe-inguruban batzuk negarka dagoz, orok alabatzat esten eben-eta.

Lide, oian etzunda, gustijai begizka dago, ittun eta eskar-begirakunakaz.

Beruenak artu dau. Amets-dagi, ta ametsetan gauza ulerkatxik asko diño. Zerozer ulertzen dabela uste dabe; egijak argi edo-dagi. Baña bat-ez-batek eztaki ulertzen dauna esaten.

Bat-batez basetxeko atian otsak entzuten dira. Lide-ren amea jagi ta idegitten dau.

Aterpian uriko jaupalburu zar itxaltsuba dagir. Itxalez agur-dagitsae. Lide-ren oe-onduan jesarten da.

—Zelan dago? —ittaunduten dau.

—Txattuago —ameak derantzutsa, ta negarez asten da.

Eta oindiño gexuaren zegattija eztakixube, ala?

—Eztakigu ezer bez, geure alabatxuba ilgo dala baño.

—Eta nik ba-neki?

—Zeuk jakin? —basetxekuak esan eben batez.

—Nik dakit, bai, gustiz.

—Zegattik eztauskuzu lenago esan? Zer dala-ta geure bijotza ausi?

—Oin-arte nik be enekijan.



Eta jaupari zarrak, gelako bazterran jesarritta, ixillik-samar, astiro-astiro, onetara esan eban:

—Lide, zubek dakixuben lez, mattasun-ereduba da. Gurasuak matte-dauz, aizkidiak matte-dauz, agura-atsuak, eta mutiko-neskatuak bijotzez matte-dauz. Baña bi dira mattiago-dauzan gauzeak: aberrija ta gixon bat, gaste inddartsuba, euzkotar-eredu ederra.

Alkar sutsu matte-eben, egizko mattasunaz. Lide-k subaz matte-eban Andoni, ta Andoni-k sutsubago Lide matte-eban.

—Eta nik jakin ez! —atteak esan eban.

—Ez zuk, ez iñok bez, ta zijorik bai-eguan. Euren mattasuna eskutaba ixan-biar, agertuzkerro galazoko yakelako. Zeu zerori ixango zintzan lenengua jarkitten. Bai-ekijen eurak, gaste ori Andoni, Kepa zeure arerijuaren semia zan-eta.

—Zer ete-da nik entzun dodan au? Alkar matte-ebela?

—Matte-eben alkar, bai. Senidetarteko gorroto zantarrak eurentzat ezeguan. Bijak abertzaliak ziran, benetako abertzaliak.

—Andoni ittota il zan, baña —esan eban auzokide batek.

—Itto zan, bai. Gaxua! Gaxuak, obeto!... Diñodan lez, ixillik eben euren mattasuna, alkar ikusitta gero gettuten zan mattasuna. Euren bastarrak (soluak) bata bestiaren onduan egozala, sarrittan, lana itxi-barik, eta susmo txarrak erazoteka, alkar ikusten eben. Urreko iturrira, egarrija kentzen, bijok batez jua ziranak! Itturriko urak abuaeren egarrija bai-eban kentzen, barria bijotzarena gettu, barriz. Eta ondoren Lide, pozpozez beterik, bere lagunakin itz-egitten juaten zan, Andoni, beste bidez, alai abestuten, errirattuten zala.

Baña Andoni-ri guda-mutilla ixateko aldija eldu yakon. Guda-burubak dettu eben eta bera urrutiko gudaletxera juateko gertu biar-zan.

Igande-arratsalde baten, uriko zelayan txistu-otsaz dantza-egin-ondoren, ekandu dan lez, dantzarijak santsoka ta ijutika, erreko iturrira joyazala, Lide-k eta Andoni-k, bestiak ikusi-barik, alde-egin eben. Bijok bakarrik egon zirala, Andoni-k esan eban:

—Lide: astebete-barru gudaletxera juango non.

—Zer diñostak? Egija ete-dok, Andoni?

—Bai, zoritxarrez. Euzkotarra ixan-arren gudarozte españarran sartu-biar.

—Ta itxiko nok? Aberrittik urrun juango az? Ez, ez, Andoni. Euzkotarra ixanik ezaz atzerrira guda-mutilla jua-biar.

—Gura ez, baña inddarrez jua biarko non.

—Inddarrez? Ez, Andoni; euk gurako ezpa-dok ezaz gudaletxera juango.

—Zelan ori?

—Erraz. Gudaletxera jua-barik Ameriketa-ra iges-egiñaz.

Andoni oldoztun lotu zan. Bijok ixilik luzaro egon ziran. Gero Lide-k barriro ekin eutson. Azkenez esan eban Andoni-k:

—Lide: ondo yeritxonat euk esan donanari. Ameriketa-n neure osabea yonat. Ara juango non eta neure osabearekin bixiko non. Geruago eu juango az, bijok alkarregaz ezkontzeko.

Esan eta egin. Dana gertau zan. Lide-ri agur-egindda gero, Andoni itxasoratu zan. Gixaxua! Itxaso-erdijan ixontzija eguala ekaitz gogorrak

artu eban eta ixontziko gustijak, Andoni be, itto ziran.

Lide-k jakin ebanian atsebagez bete zan. Asi zan larrittuten eta egun gustijan egoten zan negarrez.

Au ta be ezaban itzik esan. Baña gero ta geyago gogoz ta gorputzez gexotuten asi zan.

Au da bere gexuaren zegattija. Lide-ren ustez bera da Andoni-ren erijotzaren erruduna, Amerika-ra juateko esan eta ekin eutsalako.

Jaupalburu zarra ixilli zan. Lide-ren amea bat-baten jagi ta bere alabeagana juanik esan eutsan:

—Ene alaba mattioi! Ezaz i, ez, Andoni erail donana. Ire gogua utz-utza don.

Baña Lide-k ezeutsan entzuten. Gotzon-artera juan zan.

# DEUN-JON-GABA

Uriko zei zabal-erdiko ota-pillo andijak urrengo jaya iragarten eban. Gaba zan, eta bere illun nabarran, argontzi loi bik bakarrik argijauta, abar-pillo andijak erraldoi ixukorra irudijan, uriko zelayan lo-egitteko urrundik etorrija.

Zeya bare eguan. Geruagoko zaratea susmaurik-edo atsedeten zan. Ixil aztuna ezaban ezek austen. Gixon-itxala alboko etxe-ormaetan irarritta bakarrik ikusten zan. Kepa, uriko txiñela zan, bere ardurapeko erregai-metea zindoro zaintzen ebana.

Bat-batez, baña, txiploi batek ixilla ebagi eban. Aide batetik bestera uri bare osua itxartu zan. Etxietako leyuak eta atiak zabaldu ziran. Umiak, aparija amattu-barik, euren mai-aulkijak itxitta nagusijakin atera urten ziran.

Lastertxe urrun txistubaren ots alai-ariñak eta goyan txiployen bunbadeak entzun ziran.

—Bai-datoz! Bai-datoz! —gixon-emakumiak, zar-gastiak, gurasuak eta seme-alabeak, euren alaya ezkaturik, orok batez oyu-egin eben.

Eta txori gustijak, abijak itxitta, txaidera urten ziran.

Txiploi-durundea urreratzen zan eta txistu-otsak gero ta zolijaguak ziran. Abarrotsa entzuten zan, erle-talde andija bai-litzan. Gixa-emiak gero ta urdurijago egozan.

Guenez, bitxabalan gixoztia agiri zan. Lenengo, urija eratzartuteko txiploi gogorak botaten euzana; urrengo, mutiko-neskato loi-ortots-alaitalde nabarra; geruago, lau gaste inddartsu, makil alkartu bi-gañian ota-pillo sutaba eruenak; onen ostez uriko txistularijak, euren ereskin bijakaz ororen goguetan alaya eragitten ebenak; azkenez... uri-buruba ta ziñegotzijak eta gixozte alaya, batta beste uri-zaña ta abar-burdi andija zeiko abarrak ordezteko.

Gixoztia zeyan sartu zan. Batez alaya ta zara-tea berton ixan ziran. Alde batetik bestera gixamez beterik eguan. Mutiko-neskatuak oyu ta ijutika zeya-ziar ebiltzan.

Kepa, gustijetarik urdurijena zana, eldubai urreratu yaken, eta uri-burubari su-egitteko bai-mena eskatuta, lau mutillakandik abar sutaba artu eban, eta nausikiro abar-pillora erdu zan.

Txiploi-durundija gogorrako entzun zan, belarriak eten eta etxietako leyarrak apurtuteko zorijaz. Gixa-emiak santsoka ta oyuka asi ziran. Kepa, dardaratxu, baña orrattiño atzeko urtieta-ko bere iñarkuna ondo ekijana, abar-pillo-erdijan sartu ta sutau egin eban.

Sutzar andija egin zan; txinpartak axian, ixar igazkorak lez, zabaldu ziran, eta ota-erraldoyaren sabelak txirrika egin eban. Amaika aurpegik, sutzarrak argijauta, alaya erakutsan. Danak itzegijen, danak barre-egijen, orok gogo-alaya erakutsen, baña bat-ez-batek ekijan alaya egiztuten.

Txittian-potian alde gustijetatik beste notiñak eldu ziran. Zeya, gixoztiaren gixoztiaz, txikija zan. Etzan bat-ez-bat bere etxian lotu. Agura-atsuak be, narrezka, jai-tokira erdu ziran. Ta katuren batek, tellatuban, ikuskureak zirikauta, bere begi sutsubetan gelduba erakutsan.

Zarrak beste zarrak billatuten ebezan; umiak beste umiak, neskatillak beste neskatillak, eta mutil gastiak... neskatillak be bai.

Gaste azartu batzuk, sutzar-gañez jauzka ta ijutika asi ziran makil luze-gogorraz. Batzuk

ondo egitten eben eta txaluak artu; bestetzuk su-onduan jausten ziran eta danai barre-eragittentzen eutsien.

Txistu-otsak barriro entzun ziran eta bein-guan dantzea atondu zan. Lenengo biñaka, azke ta bizkor, erriko dantza zar baten otsaz. Geruago dantzabijau gura-ixan eben eta sutzarrari biraka, eskubaz oratuta, mutil eta neskeak, dantzan asi ziran, txistubak arin-ariña jotzen ebala. Gixa-emien estarrijetatik santsuak, alayuak, mattasun-abestijak, Deun-Jon-ereserkija-ta urtetzen ziran.

Dantzari-inguruban notiñak nabar egozan. Alkarri entzun erazoteko didar-egin biar-eben, eta ori ta be, danak itz-egijen. Noxian-bein, zeiko bazter baten tximista-antza ikusi ta txiploi bat goyan entzuten zan. Ozti garbijan ilazki zurbillak bare ta alai mendi-ganak argiztetan euzan.

Baña jayan iñor-ez-iñor uriko idazkari zarra baxen alai; gorputz zarran gogo gastia eban idazkari ospetsubak. Txiki, lodi-samar, begi-sutau-zolija, ain bizkor ikusijaz esan leikian berrogei urteduna zala, irurogetabost-edo ixan-arren. Baña esaten eban:



—Zer dira, ba, irurogetabost udabarri lora-tsu? Matusalen, erkaba ospetsuba, luzaruago bixi-ixan zan.

Eta barria ezpanetan eta itz sontsubak min-ertzan, talderik-talde ebillan, gastiak azkortuten, neskatillakin jolastu ta gozokijak eskintzen, zarren lepotik barre-egitten eta dantza egileko mutillik ez-eukijaz ittun-alege egozan neskatillai berakin dantza-egitteko baimena irribarrez eskatzen, esaten eutsela:

—Zubek, begirakun sutsubokaz mutillak uxatuten dozubezanok, neu, agura zimel zartu onekin dantza-egin gura dozube, ala?

Sutzarra itxungi-agiñian eguanetan idazkarijak erregai geyago botetan eban; txistularija nekatuzkero etzan dantzaketea amattuten; berak txistuba artu ta jo, ta jo ekitten eutsan, txistularija bigurturarte.

Bijotz-alaya zan, ziñez, idazkari ona, ta urittar gustijak matte-eben gogoz.

Zelaiko bazter baten, lurren edo zurezko aul-kijetan jesarritta, multsuka, neguban lez kikilduta, atso batzuk egozan, barriketan, euren alboko gustija begi zolijetaz arakutzen ebela.

Sasi-jakintsu arek uriko zorgiñak irudijen, gixame gustijen bizkereatzaz ittuntzeko akelarrez batzauta lez. Alagapidian bai-ziran ernai-zurрак. Euren itxalak, alboko ormean irarritta, kakatuen batzarra irudijan. Ondotik igaroten zana, gaxua! euren min zorrotzak zulatuten eben.

Baña geldi ta gentzaz itxi dagiguzan, geu geronek-atxin asi eztadixantzat, eta geure begiak aurrian dagon etxe eder batera, barriz, zuzendu. Jokin *indiano* aberatsaren jauregija zan; pendizko nagusija jaubiaren aizkidietaz beterik eguan. Ondoko aretuan txauburubak, osalarijak, irakaslarijak, osagaikarijak eta jaubiak berak, uriko andikijak, tresillo-jokuan iñarduben, beyan jazoten zanaren ardurarik-bage.

Dantzea ta alaya zelayan irauten ziran. Aldija, baña, igazten zan eta idazkarijaren alegiñakarren sutzarra itxungitten asten zan. Umiak, nekatuta ta lo-gureak artuta, baretu ziran, eta euretariko batzuk, atso baten inguruban multsuka, berak edesten eutsen Deun-Jon-askitz zarren bat entzuten eben. Gero, txittian-potian, euren etxietara juan ziran.

Oztia gero ta urrijagotuten zan. Au ta be etziran gustijak etxera juan gura. Idazkari zarrari asmo ederra otu yakon ta berialaxe egiztu eban. Zeyan aurkittu ebazan agura-atso gustijak batu, ta arren eta arrenka, berbera aurrez joyala, aureskuba egitteko gertau ziran. Agura-atsuen dantzakea, sutzarraren argi illak argijauta, ikuskantz bakana zan.

—Zorgin-dantza dirudi! —iñuen ikusliak.

Baña gogo alaidun dantza au jayaren amaya ixan zan. Danok, gastiak eurak be, nekatuta egozan. Belu zan eta sutzar andija errauts-pillua baño etzan.

Uriko zeya bakarrik lotu zan. Etxietako atiak itxi ziran. Urrun, mendijetan, beste sutzarrik asko ikusten zan, banaka-banaka itxungitten zala.

Ixilla barriro ixan zan. Urija lotan eguan eta urittarrak be. Baña, ametsetan, igazittako jaya begittanduten yaken. Bijaramonan barriketa gustijak beragazko ixan ziran. Eta geyenak ezta-be iñoz-ez-iñoz aitzuko.

Danak, zarrak eta gastiak barriro eldu dadilla gura edo-dabe, ta bere begira dagoz, gauza on gustijak itxaroten diran lez.

# LEKAIDE EUZKELDUNA

Irakurle matioi: gaur edesi gura-dautzudan jazokun jakingarrija ezta nik asmauriko ipuin motel-gazpakua. Eztot neure burutik atarau: emen esango dautzudan gustija orain urte batzuk jazo zan.

Nun? Azketsi urijaren ixena esango ezpa-dot. Baña ekixu edeskun au gustiz jakingarrija dala, ta beragaz euzkotarrak, eta batez-be euzkeldunak, ikastekorik asko bai-dogula.

Mutil zur bizkorra zan, Imanol ixenduna. Euzkeldun-artian jayo ta azija, txikittatik Euzkadi-ren elia itz-egin eban. Bere gurasuak Euzkerea baño ezekijen; erderaz tautik bez. Mutil zoruntsuba! Berak eban beste mutil euzkotar askok eztabena. Erdera-ezaz arrotzalekerija etzan bere bijotzan sartu.

Imanol azten zan, eta batez, bere goguan abertzaletasuna be. Euzkeltzaletasuna abertzaletasunaren biderik onena da. Uri txikitxuban euzkeraz bakarrik itz-egitten zan-eta, euzkotasuna gustijen bijotzetan iraritta eguan. Gero, be,

Imanol-en gurasuak kistar ta abertzale zintzo-zintzuak ziran eta euren semia bijotzez matte-ebelako Kisto ta aberri-mattasuna ondo-ondo irakatsi eutsaen.

Imanol azi zan. Eldu yakon bixibideren bat artzeko aldija. Zein autetsi? Bere gurasuak lakua lugiña ixan, ala osabearen artaldija mendirik-mendi zaindu, ala itxasora juan arrantzetan, ala uri nagosijan idazti jakintsubak artu ta adiraldu, ala zer? Bere gurasuak eurek lez lugiña ixan edilla gura-eben, seme matte-mattia eurekandik ezaldendutiarren. Baña Jaun-goikua-k beste bidera dei-egin eutsan. Jaungotasuna bere bijotzan gogor irarri eban. Eta Uskurtz-bidera eruan.

Bein laga euzan uri mattia ta guraso laztanak eta lekaretxe baten sartu zan.

Eta ointxe dator edesti onen jakingarrijena, negargarrijena ba-da be. Lekaretxe atan lekaidiak kistar onak ziran; a zala-ta lekaretxe-barru egozan. Baña erdeldunak ziran, eta gañez erdeltzaliak. Ez au bakarrik: gebenduta eguan euzkeraz ezetarako bez itz-egittia.

Guzura dirudilla? Ziñeskatxa dala? Bai, ziñez; baña Euzkadi-ko lekaretxe baten jazo zan. Eta

bai-dakit beste lekaretxe batzutan be jazoten dala oindiño. Geure Euzkera gaxua! Euzkadi-ren ele eder-jakintsuba! Ezta euzkotarren elia kistarrak itz-egitteko duña? Ez ete-da euzkerea gixamien ezpanetan entzuteko alagalakua? Ezta elerik zar eder garbijena? Zegattik bera ezetsi, zer dala-ta irail-gura, aiztu-erazo? Euzkera gaxuoi!

Lekaretxian erderaz bakarrik itz-egitten zala, lenengo egunetan Imanol estu-estu egon zan bestiai ulertu ta itz-egitteko. Baña, azkenez ta zoritxarrez be, gura-ta-ez, erdereea ikasi eban. Lekaretxe atan bere uskurtzaletasuna gettu edozan, ez, baña, bere euzkotasuna.

Urte batzuk igazi ziran. Imanol-ak erderaz beti ta euzkeraz iñoz bez egitten ebala, ondo-ondo ikasi eban erdereea, ta barriz, tamalaren tamala!, aiztu eban bere guraso mattien elia, bere uri txikijan txikittatik itz-egin eban ele zar ederra.

Egun baten esan eutsaen lekaretxe-atian bere amea eguala, berari dei. Lekaretxian sartu zanetik ezeban ikusi, uriya urrun eguan-eta.

Imanol-en alaya! Ija ijutika asi zan eta beria-laxe, poz-pozez beterik, bere ameagana juan zan.

Antxe eguan, bai, bere ama matte-mattia. Une gustiz pozkarrija! Alkarri esan gura-edo-etsaezan gauzeak! Eta laztanduta gero asi ziran itzez.

—*iMadre! ¿Que tal estas?*

—Ene seme mattioi!

Baña ezeben geyagorik esan. Bat-batez ixildu ziran, alkar begiztuten ebela.

Gauza negargarrija jazo zan: ama-semiak ezin-etsaen alkarri ulertu.

Amea euzkelduna zan, semia erdelduna; ameak Euzkerea baño ezekijan, semiak erdereba baño. Alegin andijak egin ebezan, baño ezeben euren gurarija lortu. Ama gaxua asi zan negarez; semiaren bijotza atsebagez itto zan.

Azkenez aldendu ziran, euren bijotzak ausitta egozala. Amea bere urira bigurtu zan; semia lekaretxian lotu; amea seme-barik, semia ama-barik lez.



Zerbait geyago oindiño. Ezta amattuten emen lekaidiaren edestija. Negargarijena-ondoren onuratsubena bai-dator.

Imanol-ak jazo yakona ikusiki, irabaki aberkoya artu eban. Beste lekaidiak jakitteka, asi zan barriro Euzkerea ikasten, eta gero ta gogorrago be. Azkenez, ekin eta ekin bai-eban ikasi, len baño gustiz obeto.

Orain bere amearekin itz-egin al-dau: euzkeldun utz-utza da, ta euzkeldun jakintsuba.

Ona, irakurle mattioi, euzkotar zintzo baten edeskun jakingarrija. Edesti onetan euzkotarrak, euzkeldunak batez-be, asko ta asko ikasi daikegu.

# ARRANTZALIA

## I

Itxas-uri txikijan danak arrantzaliak dira. Arrantza da euren bixibide bakarra. Gixon gusti-jak txiki-txikittatik arrantza-salletan iñarduten dabe. Gixonak itxaso zabalán egoten dirala, emazte-umiak etxe apaletan, euren begira, lotuten dira.

Euren eukijeza andija da; baña jasatasuna andijagua. Antziñeko euzkotar azartuben antzez, arrantzale onek arrisku-zaletasuna euren goguetan dabe. Sarri-sarittan itxaso zabalán eurek egindako egiñen azarkorrek entzuten dira.

Izturija (itxaso-urija) txiro-txirua da. Etixerik geyenak txikijak eta apaldo atondubak, itxaser-tzian. Itxaso asarratubak bein baño geyagotan mosu-egitten dautse bere bits gorrijaz.

Arrantzale azkarrak! Eurek matte-daben itxasuak, amaibagiak, iruntsi dauzan bixijak! Euren senide mattien bixitzak! Ezta ardura. Eurek

matte-dabe itxasua, euren bixibidia ta euren sendijaren bixibidia dalako.

Uri aunetan danak kistar onak dira, ta baidagoz abertzale zindduak.

## II

Izturi txikijan «Arrantzale-Bazkuna» irasi edo egin da. Baña arrantzaliak eztabe irasi. Erbestetik etorritako gixon aberatz batek irasi dau, berak esaten daunez, arrantzale gaxuen bixibidia obetuteko. Gixon au ezta urittarra, ezta euzkotarra be, baña bere esatez, itxas-urija matte-dau, bere-beria ba-litz lez.

Arrantzaliak lenengoz ezpai-susmuaz Bazkun barrija artu dabe. Alde batetik onura asko erakarriko dautsee arrantzaliai, bertan sartuzkero. Itxasua amurruz egongo danetan edo negubak bere ekaitz gogorakaz itxasora urteten galazoko daunetan, arrantzale gaxuak jan-edatekorik eztabela eukiko, Bazkunak berak emongo dautse ogija. Eta arrantzalaren bat ittozkero bere

alargunak eta seme-alabeak soroskija artuko dabe.

Beste aldez, baña, Bazkuna ezta ain ona. Bertan sartuteko abertzaletasuna ataz itxi biar. Bere gelaetan euzkeraz itz-egittia galazota dago. Auteskunde-aldijan autarki ja abertzalien aurka dagozanai emon biar. Bazkunaren buruba arrotza edo erbestarra dala, bertan arrotzalekerija edonun zabaltzen da.

Au dala-ta arrantzalien artian eztabaida gogorra da. Batzuk «Arrantzale-Bazkuna» onona dala diñue. Bestetzuk, orde, gustiz txarra dala, berak erakarriko daun onurea baño garrantzitsubaguak gatxak ixango dirala. Onen ustez, Bazkuna irastiaz arrotzaliaren asmua euzkotasuna ta abertzaletasuna izturijan iñartziz (enbidi-jaz) irailtzia ixan da.

Au ta be, arrantzalerik geyenak bazkidiak egin dira, onureari begira.

Sartu eztiranen artian Mikel dago. Abertzale zintzua da ta arrantzale zarra. Arrantza-salletan beste edozeñek baño geyago edo-daki. Arrotz aberatzak eta bere lagunak Bazkuna-n sartzeko sarrittan esan dautsoe, baña berak, barriz, ezetz

eta ezetz erantzun dautse beti. Txirua da, ta bestien soroskija ta urgazija edo laguntza askotan biarrak dauz, baña ez bere goguaren azkatasuna-ordez. Azke da, uretan arraňak lez, ta bere adimena ta guramena, laburrak ixanda be, bereberiak dira.

Arrotzak bere aldera eruan ezin daula ulertuki, gorroto-dautso azkenez.

### III

Negu gogorra da. Arrantzalientzako negurik gogorrena. Ekatzak egunian-egunian ixaten dira ta itxasua asaldauta dago.

Gura-ta-ez arrantza-arazuak itxi dira. Azartu-ba ixan biar itxaso asarre agaz iztate edo portutik urteteko. Arrantzaliak euren etxietan dagoz, urten-eziňik, ittun-ittun, itxasora begira. Atan arraňik eztago: etxian ogirik bez.

Gosia etxe askotan agiri-da. «Arrantzale-Bazkuna»-k bere elburuba egiztuteko, bazkide gus-tijai soroskija emon dautse. Onek, ba, ondo ala txarto, gose-barik bixi-dira.

Bestiak, baña, bazkide eztiranak? Eta eguraldijak eztau obetuteko antzik.

## IV

Bere etxe txiro-barruban Mikel dago, leyotik itxasora begira. Bere onduan emaztia ta seme-alabeak multsuka dagoz. Andoni-k, amabi urtedun seme nagusijak beste leyotik, arpegi itunaz, itxasua arakatuten dau. Andoni-k itxasorazuetan bere atteari urgazten dautsa. Arrantzale azkarra da, ta gastia ixan-arren, arrisku askotan bere buruba ikusi dau.

Danak dagoz ittun. Negute txarra-dala ta itxaso-ekatzak egunian-egunian dirala, aspaldijon Mikel ezta itxasora urten. Ganez, txiruak dira. Arrantza da euren bixibide bakarra, ta arrantza eziña dala, ogija urrittuten da.

Negu txar-txarra Mikel arrantzale gaxuarentzat! Laster eztabe jan-edatekorik eukiko ta gose gorrija etxian ixango da. Zer egin?

Bera erruduna dala esan dautsae lagunak. Eurek bez ezin-dira itxasora jua, baña Bazkuna-

n sartu dira, ta bai-dauke ogija. Arrantzale gaxuak, baña, eztau ori entzun gura.

Mikel etxe-barruban dago, leyoetik itxasora begira. Bere onduan emazte-seme-alabeak ogija deskatsae. Baña etxian ogirik eztago.

Itxasua piztuta dago ondiño, anker-ankerra.  
Dana dala ogija bilatu-biarl

## V

Guenez, egun baten beintzat, itxasua zerbait baretu da. Mikel-ak ogetik jagittian dakus ta erabakija artzen dau. Eguraldija aldakorra bai-da, ta, urrian, itxaso-barria ezta luzaro iraungo. Ardu-ra ez. Itxasora urtengo da, ta bere sendijarentzako ogija ekarriko dau.

Andoni, seme nagusija, dettuten dau, ta gertuteko diñotso. Andoni-k poz-pozik dagi; bera bejuateko guraritsu dago. Gero etxequai agur-dagitsie. Mikel-en emaztia bilddur-da, ta ez juateko diñotse. Azkenez, baña, biarra dala-ta, bijotz ittunaz, etxetik urteten dira, seme-alabeai samurkiro mosu-einda.

Nasean dagozala ta ixontzi txikijan sartzeko, arrantzale batzuk, gertakun arekaz jo ta gelduta urreratzen dira.

—Nora zuaz? —diñotsie.

—Ikusi daikezube: itxasora, arrantza-egitten.

—Zoratu ete-zarie? Eguraldi onegaz?

Eta euren asmua burutik kendu gura-dautsie. Arrantza-egitteko eguraldi txarragorik ezin. Itxasua zerbait baretu dala dirudi, baña, urrian, barriro ta laster piztuko da. Bertara juateko zorua ixan biar.

Mikel-ak, barriz, diñotse:

—Neure etxian ogirik eztago.

Orduban euretariko batek, aurreratuten da, ta asarez diñotso:

—Eure etxian ogirik ez-egotiaz eu az eruduna, eure buru gogorroi dokala-ta. Bai-yagok uri onetan «Arrantzale-Bazkun» bat; bertan sartu ba-intz eure etxian goserik elayitxakek.

—Bai, bai; lendik yakijat. Bazkun orretan sartu ba-nintzok geure etxian elayitxakian goserik ixango, baña azkatasunik bez; ta nik ogija baño gogo-azkatasuna gurago yuat.



Eta besterik esan-bage, dana atonduta eguala, atta-semiak itxasora urteten dira, beste arrantzaliak gustiz gelduta lotuten dirala.

## VI

Bai-duaz, bai, atta-semiak, itxasua-ziar. Lenenguan arrantza ugarija bai-da. Eguraldija ona, itxasua bare. Laster ixontzi txikija arrañez beterik egongo da. Au dala-ta, atta-semiak poz-pozik dagoz; egun batzutarako ogija irabazi dabe.

Baña arrantzaliak zuzen egon dira. Eguraldija gustiz aldakorra da, ta eguberdijan aldatuten da. Axe gogorra asi da ta itxaso zabalán uin edo olatu andi-ixukorrek bat-batez agirtzen dira.

Au ikusitta, atta-semiak atzera-dagije, bilddurrez beterik. Baña arrantza-iñarkunetan asti andija artu dabe, liorretik urrun dagoz ta belubegi da biar-ba.

Bat-batezko ekaitz gogoretik igesteko arrantzale bijok egitten dabezan alegiñak ikaragarriak dira, baña alperrikuak baxen andijak. Eka-

txak artu ta inguratzen dauz. Inddarkea zalla baño zallagua, oñaza zorrotz-mingotsa. Izturijan begira dagozan emazte, seme-alaba, ama ta anai-arrebaen gomutea alatsuba. Ekatzak artu ta batetik bestera darabiltz, eta inddarka ixugarrija dagijela, goirantz dua euren otoi sutsu, itxarotsuba.

.....  
Arrantzale gaxuak!

## VII

Iztatera (portura) atta-semien ixontzi txikija; azkenez, eldu da. Baña onetan notin bat baño eztago. Andoni, seme nagusija, an, itxaso-erdi-ian, uin andi batek jaso ta bera jota, lotu da.

Eztoigu senidien atsebagia agertuko.

Mikel-en etxian egun orretan goserik eztago.

Baña aurrerantzian eztau eukiko arrantza-salletan berari urgazteko bere seme mattia.

Baña au esaten dautsoenai, Mikel-ak erantzuten dautse:

—Tamala da, ziñez. Gosez ez iltziarren neure semia galdu dot; baña eztot iñoiz neure gogozkatasuna galdu, ta au semia bera baño obertzat artzen dot.

# OLESKARIJA

Oleskarija da, Euzkadi-ko abeslari argitsuba, abesti ederrakaz euzkotarren aintzeak gogoz ta sutsu goraltzen dauzana.

Gorputz-sendua, ixakera-lerdena, bekoki-ameskorra ta begi-ittun-zolija, goiko argijaz argijauta, euzko-ereduba da.

Ez ikaratu gotillun eta oldoztun ortik ibildden ba-da: urrengo urira eldutan, bere abendaidien abertzaletasuna piztuteko abestuko dauzan abesti barrietaz oldozten dau.

Ez esan, baña, ezin-dala abeslari ain goren-gua ixan abestija laguntzeko ereskiñik eztaukona. Ereskiñik eztauko, beste errietako abeslarijak lez, bere ibilgundietan eragozpiderik gura eztaulako; baña, itsuboyek! ereskiña bere bularbarruban dauko: bere bijotza da. Oberik etedago?

Ikusi egixube, ba, atsedeen-barik, bide-zidorrak-ziar ibildden. Bein bere goguan mattasunsuba ta bekokijan goiko argija ats-ixan euzan, eta beraganaño euzko-abotsa elduta, bere gura-

so zarrai agur-mosuba egin eutsen, eta asabae-na itxitta, noraezian urten zan, mendirik-mendi, uririk-uri, etxerik-etxe, aran-ibai-baso-ziar aberri-mattasuna abestuteko.

Aberriko mendijetaraño igon da ta gallurrik goyenetan otoi-ein dau. Basetxe zurijetan, atsenden-eske, sarrittan lotu da, ta baserritarren artua gosez jan dau. Bein baño geyagotan adidi entzun dauz agureak, abots asti-motelaz, sukaldian euren illobeai edesten eutsiezan erri-askitzak.

Euretariko batek, ule luze zuridun agura itxaltsubak, erkabea irudijanak, edesti ittun-ittuna edesi dautso, bere burubaz aiztuta, aintza-barik, astiro itxungiten dan abenda gaxuaren edesti tamalgarrija.

Bera entzunaz oleskarijaren bijotza taupadaka asi da, ta bere gogo aberkoya asarre bixiz sutauta, agureari agur egin-barik, basetxetik urten da, ta aiboko lurraldietaz ibilli da, azkatasun-azija edonun eretteko guratsu.

Eta euren idijak zaintzen bitxabalaz joyazan itxain batzui dei-egiñik, aboskera gogorraz geldittu erazo dautse, ta agurearen edestija edestuta,

maratz esan dautse: Ardura-ezaz jasango badozube, zuben idijok lez arrotz-bustarrija eruangozube.

Eta bidiari, aurrera, jarrattu dautsa.

Baña eguzkija itxasuan jasten da ta ortzian ixarrak asten dira agirtzen. Oleskari gastia nekata dago, ta bere izteak, burdiña baxen gogorak, eztabe ibilli gura.

Guenez, oyan itxaltsura eltzen da. Oyanak, illazki argijaz, mattagarri-tokija dirudi. Bedarganian etzauten da; lasterren lotan dago, ta mattagarri ederrak bekoki argitsuban mosudagitsa.

Eta mosu sutsubak bere gomutean ames argija, ikuskantz ederra sortuten dau.

\* \* \*

Oleskarijak ames-dagi.

Amesetan bere aurrian dakus zelai zabal orlegija, mendi goi-jagijak ingurauta. Egoi-axe bero gogaikorak artaburubak makurtu ta uzteak erretan dauz. Mendijen bian, euren egi oyartsu-betan ezarritta, gixon zendoi-gudarozte andija

oindiño agiri eztan beste areyo-gudaroztiaren begira dago, euren zapa uletsubak axian zibuka, euren begiak suba jarijoten, euren izkillubak buru-gañian erabillirik, ukabil gogorrak itxirik, Guda-Goguari berari bilddur-erazoteko añak. Mendi-gañian guda-adarra entzuten da, ta bera dala-ta, urruneko basetxietatik gudari barriak arin erduten dira bestiai urgazten, epebakoz sutauta.

Azkenez, urrun-urrun, abarrotsa entzuten da geruago ta zolijago, itxaso asarratuba ganera etorriko ba-litz lez. Eta, bat-batez, guda-adarraren ots txirritiak laspeldi zikiña ziarkatuten dau. Eta, mendijetatik sorturiko durundi ixukorra lez, irrintzi bakan uzubak erantzuten dautsa, areyua ikaratzen.

Gero, baña, uin asarratubak euren bits gorijaz itxasertz zorrotzeko aitz gogorrak jo ta zattitutta, atzera egitten daben lez, gudarozte areyuak be, asarez itsurik, euzko-gudaroztia joten dabe; baña euzkotarren bularrak burdiñak baxen gogorrak dirudijelako, ta euren adoria iñorena baxen andija dalako, burrustuta, apurtuta deuseztuta, atzera-dagije arrotzak.

Gogor atzerrittarrak ekitten dabe, baña euzkotarak eurak baño gogorrako, aberri-azkatasunarren ekitten dabe-ta. Guda-goguak sutu eta adorauten dauz. Jausten diranen negar-intzirak ittoten dira gudaka diñardubenen garrazi-oyubakaz. Gudarijak gero ta sumiñago dagoz. Atzerrittar-gudoztia, amaikatan garallla ixan zana, oinxe, barriz, bai-da, bein eta barriro, azarrijaz atzera-eragindda.

Odola eurrez ixuri da. Zelai orlegija gorrittu da. Bertan gorpu illotzak, auts-odolezko odehyak estalduta datzaz. Gixon eta zaldijak, multsuka, erijotz-lua dagije. Arratseko eguzkijak bere izpi odoltsubakaz basua erretan-dau. Baña iparaxiak egoi-axe berua gottu dau ta ozkiro dago. Otzak, euzkuen bekokijak mosubaz, azken-alegiña eragitten dautse, ta azkenez, areyo-gudoztiak, gustiz zatittuta, atzera, bere errirantz dagi. Euzkotarrak garattu dabe! Azke dira! Gora euzkotar adoretsubak!

Atzerrittarrak iges-dagije; iges-dagi euren gudalburu gaxuak, eta bere belarrijetara, bere gogua alauten, mendi-gallurretan sorturiko abots gogorra eltzen da: «Zer uste-zeben zubek,



geure lua asaldetan etorri zarienok? Geure abendearen odola ta geure mendijetako burdiña etziralara gauza uste-zeben? Oindiño ama abertzaliak seme abertzaliak sortuten dabez emen. Geure mendijak goi-jagijak dira, ta eurak bezau baño lenago zuben gañera jausiko dira».

\* \* \*

Eguzkija urruneko mendijen ostez agiri da, ta bere izpi bigunak, basoz-ziar, oleskarijaren bekokijan mosu-dagije, berau eratzaturik. Jagitten da, ta bere begi itxirriñetan gelduba ikusten da. Ames egin dau! Ames ederra, bai, baña amesa.

Ta apurtxuban ezpai dago, oldoxtun lez. Batbatez, lerden zutinduten da, buruba eragin, begijak piztuten yakoz, ta jaurkitza lez, santso zolija egindda, mendija-bera dagi.

Bere biarkunari barriro ekitten dua; Euzkadi-  
ren aintzeak abeski sutsubakaz abestuten dua;  
basetxerik-basetxe, txabolarik-txabola, amese-  
tan ikusi ebazan gixon abertzalien egiñen goral-  
kora edesteko. Nok gogo-bero-barik entzungo  
dautsa? Nok asabaen edestija ardura-ezaz

entzungo dau? Ez; danak, adi-adi, abua zabalik eta bijotza sutaurik entzungo dabe.

Aurrera-dagi. Euzko-urixura eltzen da. Zei nagusijan gixa-emiak dantzaka dagoz. Baña dantza ori ezta euzkotarren dantza garbija, atzerittarren dantza nastau-zikiña baño. Au ikusirik, gogo bixiz, zelai-erdijan dagon arri baten ganetik didar ta abots gogorraz diñotse orretara dantza ez egitteko, ta agurearen edestija edesi gura-dautse. Ezin, baña. Lenengoz gelduta begizten dabe; gero asten dira barreka, ta azkenez andik iges-deragitsoe, arin-bai-arin.

Atsebagez aurrera-dagi. Laster basetxe bate-ra eldu ta basetxe-barruban abesti alayak entzuten dauz. Abesti onek oleskarijaren belarriak mindduten dabez, ondo ulertu-barik. Sartzen da, ta mai baten inguruban euzkotar asko dakusaz. Ardao-ontzi betiak aurrian daukezala, abes-dagi-je, erderazko abesti zikiñak. Oleskarijak agiraka dagitse, ta euren asabaen seme duñak eztirala, ta euzko-errijan euzkerazko abesti eder-garbijak bai-dagozala dirautse. Alperrik! Bestiak, jaramon-barik, abesti erdel-zikiñai gogorrago ekiten dautsie.

Geruago ta itzunago aurrera-dagi. Bitxabalan mutil batzuk jolasten diñardube. Euren jokua atzerrikua da, zezenketa-jokua, ta euzkeldunak dirala, erderaz dagije. Oleskarija eurekana elduta, euri begira alditxuban dago. Gero, esakera bigunaz, beste joko euzkotarra artzeko ta euzkeraz itz-egitteko diñotse. Euren asabeak euzkeraz itz-egijen eta ezeben joko txarrik ezautzen. Mutillak, bez, eztautsoe jaramoten eta oleskarija ekin eta ekin dagola, azkenez, asarrez, arrika asten yakoz, ta arin-bai-arin oleskari gaxuak aurrera egin biar dau.

Barrero, ba, aurrera-dagi. Alper-alperrik! Bere abesti sutsubai eztautsie jaramoten; bere alegiñai ardura-ezaz erantzuten dautsie; asabaen egiñen goralkorrek ondorenguentzat eztira gauza.

Eta gaba barrero eltzen danian, alegin-alper-ostian, oleskari gaxuak, atsebagez beterik, diño: Nire amesan ikusi nebazan euzko-abertzal-ien ondorenguak ete-dira onek?

# MIREN

Bere begi eder-bigunak argiztu ta bere ezpan gorriak zabaltzen ziran gauza ain polittak entzuten euzanian. Gauzaok entzunaz bere bijotz berea samurtzen zan eta, noz-edo-noz, bere begijetan, gura-ta-ez, negar-malkuak agirtzen ziran.

Bere poz-alaya etxe begiko atan eguanetan! Iñun-ez-iñun obeto, ama beraren altzuan obeto ez.

Bai-zan polit-politta Miren neskatilla. Gotzonen ederraz apainduba irudijan. Uledi urretsuba, begi urdiñak, ezpan bigunak, mosu zurbilla, gorputz gaste lerdena... bai-zan politta. Ta ona... ta abertzalia.

Egunoro juaten zan etxe begiko atara. Beste neskatillak, bera baxen gastiak, laguntzen eben. Juateko gabeukija (orduba) jo baño askoz lenago epebako egozan antxe sartuteko. Gero multsuka, ijutika, oyuka, sartzen ziran. A zan zaratea! Erle-taldia, iñorbattek uxatuba ezta ixaten ume-talde a baxen urdurija!

Gela zabal baten, piano-onduan, aulki luzietan, jesarten ziran. Irakasle gaste batek, euren aurrian, ixilla lortuta gero, ereskiña joten eban. Mutiko-neskatuak, abots batez, abestuten asten ziran. A zan ederra! Abesti gustijak bai-ebazan ondo abesten ume-talde nabarrak! Aberri-abestijak, umien abotsetan bigunaguak, samurraguak, polittaguak irudijen.

Miren-ek bakar-abestijak abesten euzan. Bere abots zolijak gotzon-abotsa irudijan; bijotz-bijotzez abesten eban, gero.

Abestijak-ondoren mutiko-neskatuak, etxe atantxe, euzkeraz itz-egitten irakasten eutsien. Asko zirala-ta ikastola batzutan bananduta egozan. Umiak gogoz ta sutsu egitten eutsaen Euzkadi-ren eliari, euren gurasuak irakatsi ezeutsien asabaen eliari. Ekirriaren ekirriaz naikotxu ikasten eben, batez-be, euzko-elia mattetan. Eta geure ele mattia umien ezpanetan zan entzugarrija!

Bestietan Euzkadi-ko erri-askitzak (asaba-itzak), edo aberrijaren edestija, edo edeskun aberkoyak irakurten eutsiezan, umiak, multsuka,

adi-adi, egozala. Edeskun arek euren irudimen  
gastiak biztu ta euren bijotzak sutetan ebezan.

Eta abar, eta abar.

Mutiko-neskatuak pozik egozan etxe begiko  
atan. Bertan egotia eurentzako pozik andijena  
zan.

Miren, zorijon-izpi bixijaz argittuten zan. An  
egitten ziran gauza gustijak bere bijotza atsez  
betetan eben.

Euzkel-abestijak entzunaz eta abestubaz  
berak artzen eban poza! Eurak baño ederrago-  
rik, samurragorik ezin. Zegattik ezekijala, abesti  
arek abesten etzan iñoz nekatzen; orde, gerua-  
go ta eurek abesteko zaliagua zan. Edonoz eta  
edonun bere ezpanetan urten-zorijan egozan.  
Euzkerea ikasten be, zurra zan. Euzko-elia atse-  
gin andija yakon. Eta bein baño geyagotan bere  
burubari ittandu eutsan zer zala-ta euren gura-  
suak ezekijen, euren biztaldi gustijan Euzkadi-n  
eta euzkeldunen artian bixiki. Erri-askitzak eta  
edeskun aberkoyak iñok baño adijago entzuten  
euzan. Jazokun-zelayetara irudimenaz aldebijau  
ta jazoten zan gustija- ikusten ba-lego lez agi-

ixaten eban. Gero etxera juan eta jazokun aretzaz ames-egitten eban.

Miren neskatilla etxe atara juatiaz zan zoruntsuba!

Baña bein, egun ittuna! bere atteak etxe atara egunoro juaten zala jakin eban. Eta ordu-bantxe amattu zan Miren-en atsegiña. Asarrez sutauta, aurrerantzian bertara ez-juateko agindu eutsan.

Miren-en attea euzkotarra zan, baña euzkotar asko-bai-asko ixaten diran lakuak. Bere zane-tako odolaz ta ixen-abixenetaz euzkotara: ez, baña, adimen eta guramenaz. Euzko ixanaz aiztuta euzkotasunagaz epel-epela. Euzkotarren endea, elia, ekandubak eta antziñeko lagijak gauza-ezetzat artzen ebazan eta euzkozaletasuna zorakeri anditzat. Abertzalia zer zan ezekijan, atzerri-abertzalia ixan-ezik.

Miren bere alabea gauza arek ikasten etxe atara juaten zala jakinki, asarratu ta ez-laketuteko asmua artu eban, antxe ikasten ebazan ikaskintza zoruakaz bere alaba mattia zoratu eledintzat.

Miren-en bijotza atsebagez bete zan. Berak ezeban ulertzen bere atteak galazuaren zegattija. Bere ustez etxe atan ikasi euzan gauza gustijak on-onak eta mattegarrijak ziran. Gero, gogorra yakon gauza arek bat-batez iztia. Negar ta erosta-egin eban; alperrik, baña: atteak bijotz gogorra eukan.

Ordutik Miren etzan bere aizkidiakin juan. Ezeuzan abesti ederrak abestu, ez Euzkerea ikasi, ez erri-askitzak eta edeskun aberkoyak geyago entzun. Ittunak bere bijotza artu eban eta bere aurpegija zurbilagotu zan.

Ikastetxetik urtenda gero, bere lagun gustijak etxe mattera juaten zirala, bera, barriz, gurasuen etxera, ta antxe, luzaro, igazittako gauza ain ederrakaz oldozten egoten zan. Bere lagun zoruntsubai bekaitz-eutsen. Bakarrik eguala, gura-ta-ez, abesti, ele ta edeskunak gomutauta, ikasittako euzkel-abestijai abots ixil-samarraz ekiten eutsen. Olan bere atsebagia arindduten eban.

Bein, Miren-en etxera bere amamea eldu zan. Lenengoz Bilbao urira etorran. Txikitatik uri txikitxuban bixi-ixanda, ezekijan uri nagusija zer zan.



Miren-en attea poz-pozik eguan. Aspalditik ezaban bere amea ikusi. Lengo urtietan basurira, bera ikertzen, juaten zan, illean bein, beintzat. Baña urtebetia zan, bere arazuak zirala-ta, etzala basurira juan. Amea etorri zan eguna alai-alaya ixan zan.

Miren-en amamea zar-zarra zan, larogei urteduna, euzko-eraz jantzija ta euzko-ekanduz menduba. Miren illobea bijotzez matte-eban eta Miren-ek bera be.

Lenengo astietan poz-pozik egon zan senidien artian. Baña uri nagusija etxakon atsegin. Bilbao-ko zarateaz ta artegeaz gogattuten zan. Askotan bere uri txikitxubaz oldoztu eban eta, gura-ta-ez, bijoz-bijotzan ara bigurtuteko gurari bixija ats-ixan eban. Baña bere semia ta bere illoba kutuna ez-minddutiarren, ixiltzen zan.

Uri nagosijazko ittuna geruago ta aztunagua. Bein, ittun-gogait eguala, bere ondoko gelean abesti ixil-samarra entzun eban. Adittu ta euzkerazkua zala uste ixan eban. Geldu zan eta entzun-gureak zirikauta, ixil-ixillik urreratu ta ate-ostetik entzun eban. Bai, bere illobea zan, euzkel-abestijai ekitten eutsena. Orretara luzaro

egon zan atsua, ta gero, bat-batez atia zabaldu, gelean sartu ta bere illobea laztandu eban, begijetan poz-negar-malkuak eukazala. Nun, noz ta zelan abesti orrek ikasi euzan ittandu eutsan. Berak be, txikittan ikasi euzan eta oindiño ezeuzan aitzu. Miren-ek, bilddura itxitta, gustija edesi eutsan.

Ordutik atso-neskatillak aizkidiagotu ziran. Amamea etzan barriro gogattu. Bijok bakarrik egozanetan Miren-ek abestijak abestu ta ekixan edeskun aberkoyak edesten eutsazan. Batta, gatxez ixanda be, euzkeraz Miren-ek al-eban gustija itz-egiten eban.

Eta bein jazo zan, atteak bere amea ta alabea orretara aurkittu ebazala. Lenengoz, geldu zan eta zer egijen ittandu eutsen. Orduban atsuak, illobeari mosu samurra bekoki-erdijan egitsola, Miren-en abestijak bere gogo illuna poztu ta berakin euzkeraz, ondo ala txarto, itzegittiaz artzen eban alaya esan eutsan. Berak, be, bere semiagandik gauza arek entzun gura leukez...

Atteak ezaban itzik esan. Oldoztun lotu zan, bere ama-alabeai begizka.

Atsuaren eskariz Miren-ek euzkel-abestijai barriro ekin eutsen. Abestijok gixon aren belarri-jetan iñoz baño polittaguak ixan ziran. Bere ama zarrarentzako gotas ta poz-itzak eristen eutsezan.

Eta amameak asabaen esakun atseginkorrek entzuten ba-leuz lez, Miren-en abotsari adi-adi yakon.

Egun atatik gora, barriro erdu zan Miren gauza matte-matte arek ikasi euzan etxera.

Eta etxera bigurtuta bere amameari biresaten eutsan egun atan ikasi ebana.

Eta zorun-aldija zan bijontzako alkarrekin egoten ziran aldija!

# IRAKASKIXUN ONA

Egun atan agirakea beste egunetan baño gogorragua ixan zan. Irakaslarijaren begijak suba jarijoten eben. Betiko lelua! Beti lez, mutil zistrin motel ak gastelerea oguzi-eziñik! Berbera zan erruduna, mutillentzako onegija zalako, ta, makilla aldian itxitta, esakera onaz ta bigun akar-egitten eutselako. Ez olakorik aurreran-tzian! Mutil axek eta beste gustijak gasteleraz oguzten, edo esaten, ikasiko eben ondo.

Baña mutilletarik batek, batez-be, asarre-eragitten eutsan: Mikel txikitxubak, *Asartza* basetxeko zortzi-amar urtedun mutil me zurbi-llak. Ezin-eban, edo ezeban gasteleraz oguzi gura. Amaikatan akar-egin eutsan, alperrik, baña!

Irakaslarijaren ustez, ori zan mutillak euren etxietan euzkeraz bakarrik edo geyenetan itz-egitten ebelako. Ekandu txar ori kendu biar-zan eta berak kenduko ebala sarri esaten eban.

Orduko agirakea gogorra ixan zan. Mikel gaxua, ezkin (ezko-eun)-aurrian, kikilddurik,

begijak norantz zuzendu ezekijala, eguan. Aurpegiz-aurpegi irakaslarija, berari begizka, asarrez gorrittuta.

Barriro irakurteko esan eutsan. Mutillak alegin andijaz asi zan: «*Somos cosientes de...*» Ezin, baña; *conscientes-ordez, cosientes* esan eban. C arrano arek! C-ordez s oguzten eban beti. Barriro asi zan irakurten, eta len baño txartuago oguzi eban.

Irakaslarijaren asarria gorittu zan. Asarriak berak motelduta, zer esan ezekijan. Azkenez, bere alegiñak alperrak zirala ulertuki, ibittu zan. Gero Mikel-i aginddu eutsan erderazko esakuna berridazteko; eta guenez, abots gogorraz esan eutsan bijaramon esakun axe, ororen aurrian, iru bidar oguzi biar-ixango ebala ta txarto egiñezkerro, iruretarik baten ixango ba-zan be, ikastolatik jaurtiko ebala.

Mutil gaxua ikastetxetik negarrez urten zan. Bere ikaskidiak, errukijak jota, laguntzen eben. Eurek be, noxian-bein, alako agirakeak artzen ebezan.

Mikel-ak ezaban igatten zegattik zan irakaslarijaren asarria. Etzan bere erruba erdere

oguzi-eziña. Ta zana zala, ondo oguztiaren biarra ezeban ulertzen. Bere alegiñak-arren c arrano a ezin eban oguzi; berak gura bai, baña egin ezin.

Bai; Gabikagoxeazkoa-tar Mikel mutikua, etzan txarto oguztiaren erruduna, ta iñor-ez-iñor, Euzkerea baño. Irakaslarija zuzen eguan.

Basetxian jayua ta euzkeldun-artian azija, ikastetxera juan-arte ezeban erderaz itzik be entzun. Bere gurasuak euzkeldun utzak ziran, batta basetxera erduten ziran gustijak be. Ezekijan Euzkerea baña beste elerik ludijan eguanik. Baña zortzi urtiak bete euzanian, biarra zala-ta, gurasuak uriko ikastetxera bidaldu eben. Irakaslarija, jazoten dan legez, arotza ta arrotzalia zan. Mutikuak alegiñaren alegiñaz erdereia ikasi biarixan eban, txarto ba-zan be. Baña egundo ikasi ezebana ixan zan erderazko izki bat-edo beste ondo oguzten.

Mikel, negarrez ta ittun eldu zan etxera. Gurasuak, bere arpegikerea ikusirik zerbait ebala susmau ta zer zan ittaundu eutsaen. Bera, erantzun-barik, gogorrigo negar egitten asi zan. Azkenez, gurasuen ittaunak zirala-ta, jazo zana esan eutsen. Atsebagez kikildduta esakuna era-

kutsi ta irakurteko emon eutsen. Atteak bere eskubetan artu eban; bein eta barriro aztertu, baña ezaban ingijan idatziltta eguana ulertu. Erdera ulerkaintz a! Euzkeraz ba-lego...

Ta bere semia negarrez ikusirik, irakaslarija-ren gurarija kirtenkeritzat artu eban. Baña berak aginddu eban-eta, agintza bete biar. Gero, be, gustija umekerijak baño etziran. Eta Mikel-i negarrik ez egitteko esan eutsan.

Geyagorik ez, baña. Amaika guraso, onelako, dago Euzko-errija-n!

Bijaramon, goiz-goxetik, Mikel ikastetxerako bidez abijau zan. Ikastetxera urreratzen zala bijotza estubago eukan. Bilddur-bilddurra zan. Ordurik askotan erderazko esakunari ekitten egon zan. Azkenez, ekittiaren ekittiaz, ondo oguzten ikasi eban. Baña barriro aitzuko ebanaz bilddur-zan.

Ittun atsege joyan. Bidetik igaroten ziranai jaramon-barik, bere burubari esakuna berresaten eutsan. Lenengo ondo, baña gero, bilddurra-ren bilddurraz, ain ondo ez, beintzat. Negar-malkuak bere begijetan agiri ziran. Atzera juan gura-ixan zan.

Ordubantxe bere onduan abots biguna entzun eban:

—Nora ua Mikeltxu?

Begijak jaso ta uriko jaupalburuba ikusi eban. Erantzun-barik negarrez asi zan.

—Zer dok? Negar-dagik?

Mikel-en bijotz-larrija andija zan.

—Ezegik negar. Esaistak jazo yakana ta nik atonduko yuat.

Mutillak negar-zotinka edesi eutsan dana. Jaupalburu onak adi-adi entzun eban, eta amattu ebanian, beboki-erdijan mosu-egin eutsan. Gero, apurtxuban oldoxtun egon zan. Bekokija tximurtuta eukan, begijak itxirrin. Irakaslari arrotzaren egiñenak bere bijotz aberkoya minddu eban.

Guenez, erabakija artu ta mutillari berakin jarrattuteko esan eutsan. Eta ikastetxera urrera-tzen zirala egin biarko ebana atzaldu eutsan. Mikel-ak jaupalburubak esana adi entzun eban, jauparijai zor-yaken lotsez. Lenenguan geldu zan, baña gero, ulertu ebala erakutsi eban. Bere aurpegija alayago eguan.

Ikastetxera eldutian jaupalburu onak eta mutil gaxuak alkarri agur samuta egin eutsaen.



Mikel ikastolean bilddur-barik sartu zan. Bere jesarlekura juan eta artetu jesarri, beste muti-kuak, atzeguneko agirakea gomutaurik, berari begizka egozala.

Ikastaldija gentzaz igazi zan. Baña amattu-aurreko beste egunetan lez, irakaslaridak irakurri-arira jo eban.

Ezkin-aurrian jarririk, ben-ben esan eban:

—*Miguel de Gabitxeskoa: venga a decir la frase de ayer* (etorri atzoko esakuna irakurten).

Ororen begiradeak Mikel-gana zuzendu ziran. Baña Mikel, jaramon-barik, bere jesarlekuban lotu zan.

Irakaslaridak bariro dettu eban:

—*Miguel de Gabitxeskoa.*

Mikel-ak ezaban erantzun. Buru-makur, irakurten lez eguan. Beste mutillak geldu ziran. Begidak sutsu, irakaslaridak irugarrenez, gogorra-go, oyu-egin eban.

—*Miguel de Gabitxeskoa.*

Ezeban ezer lortu. Orduban, asarriak erazota, bere jesarlekitik jatsi, ta mutillagana juan zan.

—Eztok erantzun gura?

Eta ukabillaz zematu eban.

—A! Baña, neuri ittandu daustazu? —Mikel-ak esan eban— Eneban uste... Zuk *Gabitxeskoa* esan dozu, ta nik *Gabitxeskoa* eztot abixena, Gabikagoxeazkoa baño.

Au entzunik, mutillak barre-purrustadaka asi ziran. Irakaslaridak begijak-sutsu, aurpegija-gorri, bere lotsea zala-ta, zer egin ezekijan. Gero Mikel jo gura-ixan eban.

Baña ordubantxe ikastolako atia zabaldu ta ataz jaupalburuba agiri zan. Mutil gustijak zutinddu ziran. Jaupalburuba Mikel eta irakaslaridagana jua eta oni esan eutsan:

—Zer egin gura-dozu?

Irakaslaridak, asarrez, Mikel itxi ta jazo zana atzaldueutsan. Amattu ebanian, jaupari onak Mikel eskuz artu ta ororen aurrian jarririk, mutillai euzkeraz esan eutsen:

—Mikel-ak egin dauna ondo egindda dago. Guk eztogu erdereaa ondo oguzi biar, geure elia eztalako; Euzkerea bai, barriz, geure-geuria dogu-ta. Irakaslaridak gastelerea ondo oguzi dagigula gura ba-dau, berak euzkeraz oguzten ikasi begi lenago.

Irakaslarija gelduta ta ulertu-eziñik eguan.  
Mikel pozik eta beste mutikuak, irakaslarijari  
begizka, alkarri irri ta kiñuka egozan.

Mikel etzan ikastetxetik jaurti.

# ARTZAINTXUBAREN BAKALDUN-ATZEGUNA

Artzaintxu eukijeza zan, mendijan bere artal-detxuba zaintzen iñardubana. Mendi-mendiko basetxe zar, baldar, apal baten, uritik urrun, bere gurasuakin bixi-zan.

Txiro-txiruak ziran. Ozta-ozta, alegiñaren alegiñaz, jatedatekua bai-euken. Udatian alboko lurrak landutiaz zerbait ateraten eben, baña negute gogorran, bastarrak (soluak) landu-eziñagattik, sarri-bai-sarri jatekua urritxu euken.

Iñaki-k (auxe mutikuaren ixena) uda ta negu, bere gurasuak basetxe ta soluetan iñarduben artian, ardi zimel argal batzuk, mendija gora ta mendija bera, zaintzen iñarduban. Udean, tira! eguraldi ederraz atsegintsuba zan eguzkija ta axia artutia, baña neguban, eurija ta txingorra ziranetan, edo edurrak basua estalduten ebanian... artzaintxu gaxua!

Bakar-bakarrik, ardiyai begira geure mutikotxuba egon oi-zan. Ardixu arek baño beste lagunik ezaban. Eguraldi txarra, naiz eguraldi ona,

oskarbi naiz goibel, berua naiz otza zala, beti bakar-bakarrik, ardiyai begira.

Ardi argalok basetxiaren ogasun nausija ziran. Euren esne berua urijan saltzen eben. Au zala-ta Iñaki-k arduraz zaintzen euzan, amilburu ta otsuaren bilddurrez. Baña otsua etzan ardi aen billa etorten; ardi gixenaguak gura-euzan berak!

Bein, jazokun pozkorra jazo zan. Basetxe- atian gixon ondo jantzi batek jo eban. Berakin mutiltxu bat etozan, makal zurbiltxuba. Uritta- rrak irudijen, eta, urrian, aberatzak.

Basetxe-kuak gelduta lotu ziran notin apain arek toki atan ikusijaz. Bidekatuta ete-egozan?

Susmau eben lez, urittarrak eta aberatzak ziran, atta-semiak, eta basetxera etozan eskar baten eske. Semetxuba gexo-samar eguan eta osalarijak (medikuak) esan eban osatu gurazke- ro mendira, eguzkija ta axia artzen, juan biar- zala. Attea basetxe agaz gomuta zan. Basetxe- kuak notin on eta kistarrak zirala bai-ekijan. Eta bere semetxuba antxe basetxe-kuak zainduta udatian izteko, etorri zan. Gero euren iñarkun ori

ondo ordainduko eban, eta mutikua osatuzkero sari andija emongo eutsen.

Basetxequak iru bakarrik ziran: attea, amea ta seme artzaintxuba. Pozarren bayetz esan eben, eta umetxuba euren semetzat lez artuko ebela. Iñaki, batez-be, alattu-alattu zan aizkide-txu barrija eukittiaz.

Gustija atonduta, uriko gixona, bere semiari mosu, ta eskar ta agur-egindda, urina jatsi zan eta mutikua basetxian lotu. Umiaren negarra bere attea alde-egitten ikusijaz! Bere jarrai juan gura zan eta dei-oyuka iñarduban. Baña atia itxittta eguan eta attea, jaramon-barik, aurrera joyan. Iñaki-k, mutikuaren gogua asetutiarren, beragandu ta samurrez itz-egitten eutsan. Baña beste mutikuak Iñaki-ren itzak ezeuzan adittuten eta bere bilddur zan.

Axe ixan zan benetako gatxa: uriko umiak menditarren elia ezaban ulertzen. Iñaki-k eta bere gurasuak euzkeraz baño ezekijen eta Andoni mutikuak erderaz bakarrik. Zelan ixan leike ori, bere atteak euzkeraz ekijan-eta? Eurek auxe atzalduten ezekijen, barria geuk bai, urijetan abertzaletasuna galdu dala dakigulako.

Egun batzuk igazi ziran. Lenenguetan Andoni ittun ixillik eguan, sarrittan negarrez, baña gero-txu ibittu ta alattu zan. Orogen, eta, batez-be, Iñaki-ren erregubak zirala-ta, bere aizkidia egin zan. Lenengo gatxez, ta geruago errazago euzkeraz itz-egitten asi zan. Urijaz aitzu zan, eta azkenez, bere etxian baxen pozik eguan. Gixa-emiak garan aldakorra!

Iñaki-ren alaya! Andoni aizkidetxuba beretzako ixan zan atsegiñik andijena. Etzan aurrerantzian bakarrik mendi-ziar ibilliko! Norekin jolastu bai-eban. Mutiko bijok adin batexe euken.

Itz batez: Iñaki ta Andoni, bidezkoa zan lez, aizkide-aizkidia egin ziran. Ordutik aurrerantzian alkarrekin ebiltzan beti, ezetara bez alden-du-barik. Andoni zinddua zan; bera aberatza ta Iñaki txirua ixanik be, etzan arrotuten. Bijok mai baten jan eta gela berberean lo-egitten eben. Batta, bijok batuta, arditxubak zaintzen juan oiziran. Bata bestia-barik ezin egon.

Andoni-ren attea, noxian-bein, ilabetian birrittan beñik-bein, bere semetxuba ikusten igoten zan, eta ondo, alai ta sendotxu ikusijaz, bera be alattuten zan. Gero barre-egitten eban, bere

semia artzaintxu-antzez ebillalako. Onetara udatia igazi zan, udagoya be bai, ta neguba etorri. Andoni, udea igazteko bakarrik ara juan zana-  
rren, geruago senduago egualarik, eta bere arrenak eta etxekuenak zirala-ta, Gabon-arte mendijan egotia bere atteagandik jadetsi eban.

Iñaki artzaintxubak eta Andoni sasi-artzaintxubak, alkarrekin autu jakigarriak ixaten ebezan. Andoni-k bere lagunari uriko gauza ikuskarriak, bere etxeko aberaskiak, eta, batez-be, berak eukazan gustitariko jostallubak edesten eutsazan. Iñaki-k, barriz, zen-edesturik ezeban, eta augattik bere aizkidetxubaren itzak adi-adi entzuten euzan. Baña euren bekaitz ezeban. Gauza ez-ezaun arekaz bere gogua gelduten zan, baña besterik ez. Bere zaletasun bakarra ardijen zaletasuna zan. Eta biarba, biarba... Andik urre, eurek ardiak zaintzen ebezanaren onduan beste artzaña jarten zan. Artzain a beti eguan txillibittuba joten, eta ondo jo be bai. Iñaki-k adi entzuten eutsan, eta berak be txillibittuba jo gura eban.



Egunak juan eta egunak etorri, Gabona urreratu zan. Egun baten, mutiko bijok, beti lez, alkarrekin egozala, Andoni-k Iñaki-ri esan eutsan:

—Egun batzuk-buru enok emen egongo.

—Zer, ba?

—Gabona laster dok, eta egun orretan etxian egon biar. Onetara esan yeustakan atteak. Batez tamala yatak eugandik aldendutia, baña beste... Gabona ta urrengo egunak alayak dozak eta ondo igazten dozak etxian. Batez-be, Bakaldun-atzeguna... Axe egun ederra! Amaika jostallu ta emokun izten yostezak bakaldunak! Eta iri?

Iñaki ixillik eguan. Ezeban ondo ulertzen. Andoni-k jarrattu eban esaten:

—A, bai-yakijat! Iri ez-edo-dauske itxi, txirua ta mendijan bixi-azalako. Eztauske iñoz Bakaldunak emokunik itxi?

—Iñoz-ez-iñoz.

—Biarba, leyuan ire oskijak eztozak ipiñi, eta orregatik dok.

Iñaki gero ta geldubago eguan. Orretzaz itzegiten ezeban iñoz entzun. Orduban Andoni-k Bakaldunen edestija atzaldu eutsan. Bakaldun orrek, Josu Umia jayo zanian, Bera gurtzen sor-

kaldetik Belen-era juan ziran. Berari opalduteko urria, kedarra ta abaña ekarri ebezan. Il ziranian, on-onak ziralako, donokira juan ziran. Andik, donokittik, urtian-urtian etorten dira ludira, ta aberatz-aberatzek ixanik, umien artian emokunik asko banatzen dabe. Baña ume gustijai, ez; ume on eta zindduai bakarrik, ume gaiztuak ezertxu-barik lotuten dira. Bakotxak gura-dauna eskatu ta Bakaldunak emoten dautsae. Orretarako, Bakaldun-atzegunan, etxeko leyoren baten oskijak ipiñi biar, ta bijaramon, oski-barru edo onduan emokunak egongo dira.

Iñaki arrittuta lotu zan Andoni-ren edestijaz. Ta berak jakin ez, ordurarte! Baña aurrerantzian ez; berak be, oskijak leyuan ipiñiko euzan eta Bakaldunai gauza batzuk eskatu be. Zer eskatu ezekijan ondiño, baña ezer eskatuko eutsen.

Gabon-atzegunan Andoni-ren attea bere billa etorri zan. Ume bijok ittundu ziran alkarregandik aldendu-biarraz. Gatxa yaken, ainbeste egun batuta igazitta, bata bestia-barik lotutia. Andoni-ren atteak, baña, Iñaki-ri abinddu eutsan bere semia bera ikertzen sarri juango zala ta muti-

kuak artetu ziran. Agur samurra egin, eta Ando-  
ni urira, bere etxera, jatsi zan.

Iñaki ittun-ittun eguan. Barriro bakarrik  
mendi-ziar! Bere laguntxuba-barik! Baña gauza  
batek arindduten eban bere alegia: Bakaldun-  
atzegunaren gomutea. Pozik eguan bere barri  
jakin ebalako. Zer eskatuko eban? Burubari era-  
giñik, azkenez iru gauza eskatutia erabagi eban:  
bilddots zuri eder bat, txillibittu polit bat, mendi-  
jan joteko, ta negurako janzki lodi berua, edur-  
artian otza ez-ixateko. Jostallubakaz etzan  
gomuta-ixan. Baña ezpaya sortu yakon: Bakal-  
dunak urijetan eta aberatzen etxietan euren  
emokunak izten ebezan, baña, mendijan? a lako  
basetxe txiruetan? Ittundu zan barriro. Baña  
gero otu yakon Bakaldun arek on-onak eta deu-  
nak zirala, ta urrian... Dana dala berak oskijak  
leyuan ipiñiko euzan eta ixango zana ixango  
zala.

Gabona igaro zan; urrengo egunak igazi  
ziran, eta, guenez, Bakaldun-atzeguna eldu.  
Egun osuan Iñaki artegatsu urduri egon zan.  
Gaba elduta, apalduta gero, bere gurasuai ezer  
esan-barik, leyoratu ta bere oski edo zapata

urratubak antxe ipiñi euzan. Gero gurasuei mosu-egin, *Agur Miren* otoi ta, abots-ixil, gura-ebana Bakaldun deunai eskatu. Baña beste ezpaya: Bakaldunak euzkerea ulertzen ete-eben?

Oldozkun onekaz oeratu zan eta andik laster lotan eguan. Gaba osuan Bakaldunakaz amets-egin eban.

Bijaramon, iñoz baño goxago itxartu ta oetik jagi Astiro-astiro, bijotza taupadaka, leyora urbilddu zan. Urtzi Deuna! Ikusten ebana be, ezin eban ziñetsi! Leyuan bertan bere oski urratu-ordez beste oski barriak egozan, oski-barruban txillibittu politta, eta leyo-pian janzki barrija ta, be! be! bilddots zuri ederra, berari begizka. Mutikuak bere begijak igurtzi euzan, ziñetsi-eziñik. Gero, uste-barik, belaunbikotu zan, eta bere abotik Bakaldun deunentzako eskar-otoya donokira igon zan.

Orduban, bere atzian, abots bat entzun eban:  
—Bakaldun deunak ume gustijakaz gomuta dozak, naiz aberatzak naiz txiruakaz, onak eta kistarrak ixanezkero. Eta ele gustijak ulertzen

yuezak. Ta i ona ixan azalako ona emen euren emokunak.

Ta buruba bigurturik, ikusi eban irribarrez Andoni-ren attea, Iñaki artzaintxubari mosu ta laztan egin eutsana.

Auxe ixan zan Iñaki artzaintxu txiruaren lenengo Bakaldun-atzeguna.

# MENDIKO GENTZEA

## I

Mendi-mendijan, baso-usua oyan-artian-antzez, arkaitz-abijan etzaunda lez, *Agerre* base-txe zurija gixa-emien begijetatik ostenduta eguan. Euzko-ziñeskintzearen txadona (elexa) irudijan, antziñan, mendi-tontorran, gixon senduen jauntzaletasunak iragija. Bere orma lodi gogorak, bere andijak eta bere aterpe zabalak, bere egillien sendua ta errukija erakusten ebezan. Antziñan, bidazti bidekatubentzako zaindorkija ei-zan eta bertan janarija ta sutondoko aulkija ixaten ebezan. Aspaldittik, baña, etzan iñor-ez-iñor bertara eltzen, basurde uzuba edo edurte-gabetan janari-billa ibilli oi-diran otso gosetubak ixan-ezik.

Etziran *Agerre*-raño eltzen uri andijetako eguratz edo axe aztuna, ez euren zarata jasakatxa; etziran bertan ezautzen beko lurraldietako lera oker-zikiñak. *Agerre* mendiko gentzaz bare-bare

eguan. Eta bekuak bertaraño eltzeko gauza etzilara, nok bare ori ausi?

Au zala-ta gixa-emiak ozta-ozta *Agerre*-barruban jesarten ziran, basetxeukuak ixan-ezik. Onek notin lantzaliak ziran, euren ixerdijaren ixerdijaz alboko lurrak landu ta ekartu erazo ebezanak.

Jon Joseba etxeko jauna gixon sendua zan, inddartsu ta basotija, lur gogota landuten ekan-duba, ta bixi-zan basetxia bere gurasuakandik artu ebana. Berakin bixi-ziran Jone bere emaztia ta seme-alaba bi: Andere, amazortzi urtedun neskatilla lantzale ta liraña ta Mikeltxu, amar urtedun mutikua.

Sendi apal zinddua zan, uskurtzalia, ta egunoroko ogija lortuteko lan egitten azkarra. Neguban, bidiak edurrez beterik egozanetan, Jon Joseba-k bazterreko sutizkillu zarra artu, ta, mendiz-ziar, otsuak eta janari-billa iñarduten eban.

*Agerre*-n orok lan-egitten eben, alperkerija ezegokijuen-eta: Jone-k eta Andere-k etxe-zeregiñetan eta Mikeltxu-k lugintza-salletan attea laguntzen. Noz-edo-bein euretariko bat urreko urira jasten zan; olakuetan eta igande jaupea

entzuteko jasten ziranetan bakarrik mendija izten eben.

Eta biarrik bez. Mendiko bariatz, zoruntsubak etziran ala? *Agerre*-n, mendi-mendijan, bian baño donoki-urriago ez-ete-egozan? Bakartalde aretan euren otoyak, nok asaldau?

## II

Baña bein mendi-gentzea ausi zan. Basetxe zuriko aterpera gixon-taldia eldu zan. Euren itxuretaz beko aberatsak ziran.

Jon Joseba, ikuskantza ikusten lez eguan; ain gatxa yakon, ba, betarrak leku atan ikustia.

Baña basotija ixanda be, abegi-on-zalla zan, eta etxeko atiak zabaldu euzan, eta bakotxari mai-ondoko aulkija eskiñi eutsan, emakumiai bazkarija gertetako esanda.

Gixon arek, Jon Joseba-ren aurpegijan gelda-suna ikusitta, euren ibilgundiaren zegattija atzaldtu eutsaen. Menditzar aren barruban aberaskija ugari eguala jakin eben; bere barruko arrijakaz amaika etxe barri egin leikian, orren ugari ta



mota onekua zan ango arrija. Eta eurek, gixon zur arek, ezin eben aberaskijak galduten itxi. Au zala-ta igon ziran, Jon Joseba-kin ittundu-gurarik, lanak len-bai-len asteko.

Arrobijak idegiko ziran eta langilerik asko erduko zan-eta, asko, be, irabaziko eban. Jon Joseba bera langille-buruba ixango zan; nor bera baño obeto orretarako, bere basetxeko tokija ixanik? Esku-zabalaz sariztuko yakon eta bizpide barriak euren biar-ixanak arindduko euzan, sarrittan, edurtietan batez-be, lan-egittia eziña zalarik gettuten ziran biar-ixanak.

Adi-adi, irudijanez, Jon Joseba-k gixon arei entzun eutsen; baño entzuten ebanaren barriaz ondo adittuten ezebala, bere begijak agertuten eben. Au-ta-be, ezeuzan bere ezpanak zabaldu. Bakarrik langille-buruba ixango zala esan eutsaenian, agin-artian jarkija erakutsi gura-ixan eban. Zin-ziñez, bere bariaren austiori ezaban begi onez ikusten. Etziran ordurarte zoruntsu bixi-ixan beko gixonak araño erdu-barik?

Baña notin aen esanaz, esan adorekorraz, Jon Joseba-k bere gogo-lerrea naibagetuten eban irabakija, azkenez, artu eban.

Gixonak, euren gurarija beteta, poz-alai mendiz-bera joyazalarik, Jone, autu osua ixillik entzun ebana, bere senarrari urreratu yakon eta bilddur-samar esan eutsan:

—Enatxakok ni eure irabakijari jarkiko, baña, eztok susmetan beko axe orrek geure zoruna eruan yaikianik? Bular-barruban yuadanak, zer dokan etxakijadanak ori bai-yostak agertzen.

Jon Joseba-k eziban erantzun; sorbaldeak jaso, ta lan-egitten juan zan.

### III

Aldi gitxi-buru lanak asi ziran. *Agerre*-tik bos-teun neurkin-edo arrobija urratu zan. Jon Joseba buru ebelarik saspi langillek (geyago ezin toki atan) egunian-egunian ekitten eben. Lenengoz mendi-errayak burdiñaz urratu ebezan, eta gero estandeak entzun ziran. Eta, ziñez, euren durundijak etxaken menditarrari begikuak ixan.

Jaubiak zuzen egozan, bai. Arri egoki ta ugarija zan mendi-barrukua, ta irabazpidia ezin obia. Eragotzi bakarra ixan eben: arrija urreko uriraño

eruateko area. Baña Mikeltxu-k gottu eban, idiburdijaz eruanaz.

Langilliak egunoro urira jatsi ezin zirala-ta, arrobi-onduan zaindokija egin eben, eurak egon eta tresneak jaboteko. Langille aretarik geyenak on-zintzuak ziran. Geyenak esan dogu, euretari-ko bi bestetara oker-ezkelak ziralako. Jon Joseba-k bere guraz eleukezan iñoz bez artuko, baña bere nagusijak eukitteko eskatu eutsaen eta ezin jaurti. Lera okerdun gixon arek laster euren gogo-gaiztua erakutsi eben, eta egun gitxi-aurreko, euren lagun gustijakaz asarretu ziran. Onez ganera alperrak ziran, eta, sarrittan, lan-egin-barik bestiai zirika edo mendittik aldenduta egozan, nun iñok ezekijalarik.

Jon Joseba, euren ixakerea zala-ta, bein baño geyagotan gixon gaiztuak andik bota-agiñian egon zan, baña buruba ezi ta ereti obiaren begira itxaron eban.

Bittartian lanak aurreratuten ziran, astiro bazan be; ta bein baño geyagotan gelditu-erazo ziran, eguraldi txarrak zirala-ta. Aretan langilliak *Agerre*-ra erduten ziren, ezer-billa edo etxekuen artian oporraldija igazten. Eta abegi ona ixaten

eben, etxeak basoti ta buru-bakartzaliak ixan-arren bijotz-errukijorak ziralako, ta basetxe zarreko atian joten ebanari atia itxi ezin eutsaelako.

Gixon bi bakarrik atera biar ziran: Marka ta *Begi-bakara*, (begi bat bage-eban-eta) len attatu doguzan langile okerrak. Basetxe zarran sartuten ziranetan eurekaz batez ondo-eza ta keskea sartuten ziran. Eta ezin eurei atia itxi; euren ixakerea zala-ta txarrago ixango zan.

Andere zan eurek ikustiaz geyen iguinduten zana. Berak zegattija ezekijalarik, *Begi-bakarra*-k, bere aurrian eguanetan, bere begi bakarrak begiztuten eban adi-adi, neskatillaren begiak eratsi-erazoten. Eta Andere-k bijotz-bijotzez gixon bigurrari iguin eta ikusi-ezin bixiak eutsazan.

Eta neskatillak sarri-askotan aurkittuten eban, zorginkeri-kaltiak alkarri erakarten ba-leutsaz lez.

## IV

Andere-k zijorik bai-eban *Begi-bakarra*-ren bilddur ixateko. Au-ta-be ezeuzan bere asmo okerrak susmetan. Girna okerdun gixona zan, bere bizkera aldakorrak mendira ekarrija, ta ez ogija irabaztiaren; bere oin gentzauskorrak mendi-mendijan eta basetxe zarran ipiñitta berialaxe, neskatilla liraña ikusirik bere girna okerrak berbiztu ziran, eta ezi-eziñik, bere gurari lixunak be piztu, ta adijona-begira gertu zan.

Jon Joseba-k, baña, menditarra ixanik, gustittariko piztijen asmuak aurretijaz ezaututen ottuta egularik, laster susmau eban mendi atan agiri zan otso barrijaren asmua, ta zur ta ixiltsu, berari zain gertu zan.

Andere-k, ordez, bere areyuaren zalekarija ezaban susmetan. Mendi-mendijan jayua, zintzo ta tolestagia, Jaun-goikua ta bere gurasuak eta nebea baño besterik ezaban mattetan. Mattasun ori, bai, andi-andija zan, bere goguaren ona baxen andija, bere gorputzaren ederra baxen andija. Mikeltxu ta urrengo txabolako artzain zar baten ardiak bere lagun bakarrak ziran. Geyago-

rik ezaban gura. Eta gañera gixonen mattasunatzaz, zer-ete-ekijan berak?

Au-ta-be gixon ak begiztuten eban ereaz gogaltzen eban, eta bein baño geyagotan bere atsegia erakutsi-agiñian egon zan. Eta bijotz-bijotzez uriko gixonen etorkundia gaiztetsi eban.

Zana zala orretara ezin jarrattu. Ta amaya lastertxu etorri zan.

Bein, egun oskarbi ta eguzkitsuba zalarik, Andere urreko iturrira jua zan, zapijak eguzkitan imindeko. Bere iñarkunari ekitten eutsan artian abots zolijaz antziñeko mendi-abestija abestuten eban. Bat-batez bere aurrian *Begibakarra* agiri zan. Bera ikusirik, neskatillak ixu-oyuba egin eban eta etxerantz abijau zan. *Begibakarra*, baña, bere aurrian jarri, igaroten gala-zo, ta esan eutsan:

—Zer donala-ta igesi, Andere?

Au, erantzun-barik, geldittu zan.

—Nire biidur ete-az? Otsua enon, ba.

—Otsuen bilddur enok, baña i otsuak baño uzubago bai-az.

—Bilddotxuba non, Andere, bilddots otzan-otzana...

Ta neskatillagana urbilddu zan, begi bakarraz begizturik.

—Itxi eistak igaroten! —atsebagez oyu-egin eban Andere-k.

—Orren iradu ete-az? Eukin itz-egin gura yonat.

—Neukin? Iñoz bez!

—Apurtxuban bakarrik.

—Ezetz esan yuat. Alde emendik!

—Gura-ta-ez entzungo yaustan. Nik matte aut; bai-dakin.

Eta Andere-ren sorbalda-gañian bere eskuba imiñi gura-ixan eban.

Neskatillaren zanetako odol gustija arpegira igon yakon, eta bere bijotzan ixakun mendirrarra berpizturik, jagi ta *Begi-bakarra*-ren atxin atomau zan, lurra-jo erazo ta basetxerantz igesi zan.

Gixona jagi zan neska-jarrai jua-gurarik, baña ordubantxe bere albuán entzun eban:

—Geldi edo ilgo az!

Eta Jon Joseba, bere sutizkillubarekin berari zuzenduta, ikusi eban.

Bijaramonan *Begi-bakarra* ta Marka bere laguna, arrobittik egotzi ziran, ororen alayaz. Alde-egin baño lenago aspertuko ziranaz zematu eben. Iñok ezeutsen jaramon; juan ziran eta euretzaz etzan aurrerantz ezer jakin.

## V

Mendijan ain gogorra dan neguba, azkenez, eldu zan. Oyan-zelayak edurrez beteta egozan. Otz-otza zan, eta eguraldi txarra. Bide-zidorrak edurrez estalduta. Otsua ta basurdia asi ziran neguko iñarkunari ekitten. Ikuskixuna iñoz-ez-iñoz orduban baño ederragua.

Jakiña, arrobi-danak luzaroko geldittu biarixan ziran, eta arrobi-ondoko zaindokijan eta *Agerre* basetxian atiak itxi ziran, negu gogorra sutonduan igazteko. Len jazo zanaz danak aitzu ziran, batta gixon okerretaz be. Andere bakarrik, barru-barru, ezereen bilddur zan, baña.

Arrobijan eta bastarretan iñardun-eziñik eta ali-billa urira jastia gaitz-gatxa zalarik, bizpide bakarrari eutsi yakon. Edurra atertuten zanetan



Jon Joseba-k eta bere lagunak sutizkillubak artu ta exaz urteten ziran, esku-utsik atzera ez-egittekoko.

Bein, eguraldi txarra zala-ta, etzan urten iñor basetxetik. Jon Joseba ta bere sendija *Agerre* basetxeko eskaratz zabalán egozan. Gastañak erretan iñarduben. Andere, bere gura-arren, artega eguan.

Bat-batez, otsuaren uluba entzun zan. Andere-k arrittu zan eta attea begiztu eban. Onek, itz-egitteka, sutizkilluba artu eban. Barriro ta urrunago entzun zan uluba, zoli ta luziago. Mikeltxu ameagana urbilddu zan. Jon Joseba ateratu, urte-teko gerturik.

—Nora ua? —Jone-k esan eutsan.

—Otso ori irailtzen.

—Ez urten, atta —Andere-k esan eban.

—Zegattik ez? Zubek etzadiz bilddur. Laster natorke.

Eta urten zan. Batez danbada bi entzun ziran eta gizon baten min-didarra. Andere jagi ta atia idegi zan, baña attea-ordez, Marka ta *Begi-bakarra* ikusi euzan, bere ganera jausi ziranak. Oyu egin eban, attea dettu, baña alperrik, attea ezin

zan erdu; bere inddarrak be, alperrak ziran; gaizto arek ittoten eben.

Bat-batez, danbada barrijak basetxia dardaratu eban eta *Begi-bakarra-k*, birau-esanik, lurra jo eban. Au ikusirik, Marka-k neskatilla azkatu, ta otso jarrattuba lez igesi zan, Mikeltxu-k, attearen sutizkilluba eskumean, bere gorpubari mun-egitsalarik. Jone zorabijauta eguan eta Andere ixuz zoratuta, ule-lasai, alaka. Mendiko mamua irudijan, mendiko gentzea galdu zalako negarrez.

Beko gixonen lera okerrak betiko galdutako mendi-gentzea.

# GOI-EGUZKIJA

*Buru-itx au Aznar-Zubigarai-tar Imanol-ak erderaz idatzi ta antzeztu eban. Nik, politta eritxi dautso-dalako, euzkeraldu ta emen jarten dot.*

*(Oyan argi-argija. Eskumaldez artzaña dagir zelai-billa, urrun-urrundik etorritta. Bere janzkija zakarra; bere begijetan itxaro-izpija dargi.)*

Artzañen Neskutzetxuboi!... Noiz elduko ete-non?... Nire bidian oyu-egin eban bixar baltzedun belduboi!... Nun ete-yagozak ire oñatzai jarrai yuazakanak? Nun orrek, neure begira yagozakan orrek bixi dozakan zelai-baztertxuba?... *(Bilddurrez)* Lekaruan sartuten nazala dirudi; abesti ta irrintz-bako bakartalde onek ittoten nau... Jaunoi! Nun yagozak nire anayak? O! Urinausijak ete-zarie zubek?... Mendiko txabolan ametsetan ikusi dodan zelai-baztertxuba ete-da au?

Ni naz Jon Ugutz; urrun-urrun, mendi-tontorran, otsuen zulo ta sayen abi-onduan ardijak zaintzen dodazanau... Ez, arren, neure lepotik barrerik egin!

*(Asele-eraz, geure basetxietako sukaldietan egiñen gomulagarijak edesten diran eraz.)*

Gixon batek bixar-baltza ta Beldu-antzedu-nak neure anai-arrebeak zariela esan daust.

Eta ni, bular-barruban daukodan txingi bat zubei ekarten natorkixube. Artalde gustijak, edurtokijetan zaunka dagijen artzañor gustijak baño aldintsubagua danau.

Mattero jaboten dot... matte-mattero. Nire attitteak azkenengoz irail eban otsuaren narruba baño matteruago. Neure attittea!... Neure attittea!

\* \* \*

Artzaintxuba nintzan oindiño. Antxe, ira ta lurraz egindako txabolean nire attittatxuba bixi-zan, gorputza zauratzez (zauri-atzez) beterik, arrubetan ainbeste otso ittotiaz besuak ind-

dargetuta eukazan artzain zarra. Batta emakume on-ona bixi-zan be... neure amea!... (*ittun-ittun*) Neure ama gaxua! Txabola-zokonduan, ilzorijan egualarik dardaraz mosu-egindda esan eustan: «Ene semetxu! agur!, otoi ire amearen aldez. Ez itxi mendi-gana, ez txaboleau egundo. Ez jatsi zelaira». Eta nire amea juan zan. Gero amets-egin dot, neure amea, ama ona, neure txabolatik donokira egaztu zala.

\* \* \*

Tira ba! Arratsalde baten, artaldiak bildduki, eskaratz andijan, enbor gogorran jesarritta, attiteari nire egiñen gorengiak edesten neutsazan. Orduko, udabarriko eguzki-izpijak ezaban mendija argijetan. Nik oindiño enekijan beste artzañak lez makilla irabiltzen, eta ori zala-ta neure attiteak esaten eustan:

—Ezua arru-arrura, ire besuak oindiño otsua irailtzeko inddarra etxaukek-eta.

Eta ni arrura jasten enintzan azartzen. Baña egun atan, ardi batek... neure ardijak! bilddotxuba sortu eban. Bilddots gaxua sasi-onduan otzez

dardarka eguan eta antxe be neure ardiya, lazta-  
naz miazkatzen eta bilddotsa ilgo zanaren bild-  
durraz alaka.

Nik, orduban, mendiz-bera egin neban  
(*sutsu*), eta bilddotsa eguan sasi-ondora eldu-  
agiñian... A!... aitz-ostetik otsotxuba jauzten da  
ta neuganantz-dagi, buztana gora, belarriak jagi  
ta agin zurijak bilddotsa-billa.

Otsakumia zan, azkengo sortaldikua; ain txi-  
kija ikusirik bere bilddur enintzan ixan. Otsaku-  
mia nire gañera jausi zan eta besuan aginka-  
egin eustan. Aginka, bai!... Aginka!... Nik be  
gogor egiñen neban; nire makilla jaso, ta azke-  
nez, aginka odoldurik, otsakumia nire oñetan  
jausi zan, gottu ta ildda. Neure alaya! Otsuak  
irailtzeko gauza bai-nintzan!... Eta nire attittear-  
ren poza!

Bat-batez, attonari lenengo egiñen ori edes-  
tuta txabolako atian gixon batek jo eban.

—Eu!... Artzañoyek!

Abots sendua zan; neure eritxiz, irrintz batez  
mendi osua ikaratu leikian abotsa.

Neure attittearen aurpegijan atsegia agiri zan  
goteungiaren abotsa bai-litzan.

Laztandurik esan eustan:

—Mendiz-ziar bidekatu dokan arrotza edo-  
dok. Jaun-goikua-k berari urgazteko agintzen  
yauskuk.

Eta abotsak, len baño zolijago birresan eban:

—Eu!... Artzañoyek!

Orduban ateratu zan attona.

—Txabola-barrura egik, bidaztjoi!

Gixona eskaratzen sartu zan eta neure atto-  
na laztandu eban, aspaldittik ezautu ba-leu lez.

Gixon sendua zan, artzañak lakua, bixar  
baltz-baltzeduna, begi-zolija ta bekoki-zabala...  
zabal-zabala... ortzia baxen zabala!

—Jaun-goikua-k zaindu agi, artzain anai ori!  
Batta eu be, euzko-gastioi! —irribarrez esan eus-  
kun bixar baltzedun gixonak.

Gero gastaña-enbor zarran jesarri zan.

Ni eskaratz-baztertxura juan nintzan, eta ber-  
tatic nire attitea anaya lez artzen eban gixonari  
begizka adi-adi nenguan.

—Esan eistazak, artzain anayori, mendi one-  
tako jazokunak, ire txabola, ire guraso, ire asa-  
baen edestija!

—Baña zer edesiko dauskat, bidazti ori, —  
artzain zarrak iñotsan— urittarrak mendittarren  
lepotik barre-egitten dozube-ta?

Nire txabola autan eukijeza beti ixan dok,  
batta matte-matte-nayenduben artzañak, eta  
artaldiak bilddu ta otsuak irailtzeko makilla ta  
aballa. Ene asabaen gauzeak! Artzañak izan zua-  
zan eta bein euren ardiak laga ta arrotzai jarki-  
tten, euren txaboleak sutau ta neskatilla mendi-  
ttarrak ostuten yuezan atzerrittarrai jarkitten  
juan ei-zuazan. Eta antziñeko abestijak edesten  
yuek geure asabaen besuak etzuazala makalak  
izan.

Bidaztija dardarka eguan.

—Geyago, geyago, anai!

Eta orduban nire abitteak edestu eutsan  
geure mendiko artzañak arrotz-gudaroztia gottu  
ebela, ta arruban ildda jausi ziran gudari atzerri-  
ttarren aztamakillakaz euren ardijentzako esija  
egin ebela. Geure aberriko mendijetan ixan zan  
abail-otsa! Geure mendijak asaldetan erdu ziran  
arrotzak, odolez ittota, amillondoraño jausi  
ziran!



Bixar baltzedun beldubak itz-egin eban. Negarrez, bular-barruban tamal-tamala ba-leulez, itz-egijan.

Eta gauza ederrak esan euzan; ametsetan lezesaten euzan.

Gero... urtetian, neure attittea barriro laztandu ta esan eutsan:

—Zelaira nayuak artzain zarren gauzeak edestuten. Ire abail ori iñoz barriro irabilliko aldok!

Eztakit zer esan eban gero, nire artaldien bidez-ziar joyalarik. Baña negarrez bai-eguan.

\* \* \*

Gero... urterik asko igazi da. Ordutik ona otsuak ugari irail dodaz. Nire attitteak bixar baltzedun gixonatzaz itz-egitten eustan.

Egun baten... agurea, ardi-billa, mendiz-berajatsi zan.

Urtetian oyu-egin neutsan:

—Attittatxu: Zegattik txabolatik urten ire izteak arkatxik-arkaitz ibilddeko gauza eztozakala?

Baña ezeustan erantzun.

Agureak mendiz-bera egin eban. Ni txabolean bere begira lotu nintzan, basetxe-onduetan zaunka egijen artzañorari entzuten. Eta attittea... etzan bigurtzen. Mendiz-gora, arkatxik goyeneraño igon nintzan; nire eskubak batu ta irrintz gogor zolija, mendi-baso-ziar zabaldu zana egin neban.

Baña ezeban iñor-ez-iñok erantzun!

Barriro oyu-egin neban, eta arruban bakarrik anotsa entzuten zan, arrotz-abotsa bai-litzan.

Orduban, sasijak-ziar, arri-artietan jauzka, arrura jatsi nintzan. Areitz sendo-onduan odola... ikusi neban... eta arantzetxubago, etzaunda... attitta gaxua!

—Attitta! Ene attitta! —esan neutsan.

Baña ezeustan erantzun. Lepo-gañian artu ta txabolara eruan neban. Oinddiño bixi-zan!

—Attitta! Ene attittatxuboi! ni nok! Jon Ugutz nok!

Agureak, il-agiñian, laztanduten nenduban.

—Ene semetxu! ildden nok! otso madarikatu orrek gottu nayok. Baña il-aurrian entzun eistak. Ara: ilgo nokanian, mendiz-bera egikek eta zelai-

ra uake! Artzaintxuba intzala laztan-egin yeustakan belduba, bixar baltzeduna an bixi-dok! Esatsok il nokala! Ez, baña otso batek gottu nayokala! Eta esatsok etorteko... etorteko!... txabolea, artaldia, artzañorak beriak dozakala!... Ementxe geure ekandu zarraz azke bixiko dokala!... Onaño atzerritarra eztokala igoten!... Emen goieguzkijak argijetan gayozakala!... Goi-eguzkijak, bai, aberri-eguzkija dokanak!

Eta agurea laztantzen nendubalarik, irribarre egijan.

—Zelaira arin-egikek, artzaintxu! Begi zolizolidun irakasle ta anai a dettu egikek!

Agurea zurbilddu ta otzittuten zan.

—Otso bigurri a! —azkenez esan eban, eta bere buru zurija ira-gañian etzaun zanian, bere ezpanak esan eben... «Jaun-goikuoi»... eta neure attittatxuba donokira egaztu zan.

\* \* \*

Arratsalde baten neure txabolatik urten nintzan. Zelaira jatsi biar. Il-aurrian neure attitteak aginddu eustan. Bide ta zidorretaz bai-naz ibilli;

eguraldi txarrak jasan dodaz, ta bidian nire artzañor gustijak il dira.

Oyana itxi nebanian gixon bakana aurkittu neban eta esan neutsan:

—Artzain anai ori! Neure attittea laztandu yokan gixon sendua, beldu-antza, bixarduna, ikusi ete-dok?

Eta gixonak esan eustan:

—Zegattik neuri artzain eretxi? Basotijoi!

Otsua lez begiztu ta oyu-egin neban:

—Zer gero? Aberri onetan ezkozak danok anayak ala?

Gixon a aldendu zan. Gero beste gixonak aurkittu dodaz. Ittandu dautset, eta batzuk barre eta bestetzuk, niri begizka, bular-gañian gurutza egitten eben.

Gaur, bazter baten, emakume artzain zarra aurkittu dot.

—Esan, artzain, nun yagon nire txabola-ziar igaro zonan gixona?

—Zein gixon, artzain?

—Goi-eguzkittan bixi gura-zonan gixona, mendiko txabolaetan jesarten zonana, ta artzañai anayak ereisten yeutsekana, ta arrotzaren

atxin geure mendijetan guda-egin yonenen gau-  
zeak entzun gura-yodazana.

—Gixon sendo samur ameskorra? Danok  
alkar laztanduten gallurretara igon gayendixala  
gura-yokana? Bere abotsaz aberrija eratzartu  
yokana?

—Bai, nire attittea laztandu yokana!

—Il dok, artzain! —esan eustan atsuak—  
Ziñopa ixan zuan!

\* \* \*

Bijok negar-egin dogu. Atso ona bere bidiaz  
jarrain da ta ni neure txabolara bigurtu gura ixan  
naz, neure attitteen aldez otoi-egitten.

Bakarrik nengualarik, goi-eguzkijaz oldozten,  
neure aurrian bat-batez ikuskantza ixan zan.  
Ikuskantza!...

Bera zan! (*alai-alai*) Bera zan! Bixar baltz-bal-  
tzeduna, begi zoliduna, bekoki zabal, ortzia  
baxen zabaldun gixona.

—Irakasle! —esan dautsot.

Eta berak erantzun daust... (*alayago*) bai! nik  
entzun dautsot:

—Artzain! aurrerago! zelai-bazterreraño!  
Matte-nayuenak antxe yagozak! Euren anaya  
nokala esaskiek! euren anai nagusija! euretari-  
kuak zorotzat artu yuena! Esaskiek eten-barik  
lkusten yuadazala! Jaun-goikua ta Aberri-aldez  
aleginddu bayedixak! Eu baxen senduak ixan  
bayedixak; otsuak ittoteko beso-inddartsubak  
euki bayedixak; eta tontorrera igon bayedixak  
zelai-illunan argi-egingo yautsekan eguzki-bila.

Ikuskantza begikatu zan gauza ederrak esa-  
nik, eta ayenatutian begiztu nenduban eta esan  
eustan:

—Artzain, zelaira uake!... Itxarua ta bijotzak  
gora!

\* \* \*

Eta zelayan nago. Auxe, ba, neure txingija:  
Bekoki zabaldun, ortzia baxen zabaldun Irakas-  
liaren gomutea. Oin... mendi-goira nua, artaldiak  
zaindu ta goi-euzkija gozarten. Eta poz-alai nua,  
neure abendaidiak eta bixar baltzedun belduba  
ikusi dodazalako Mendi-mendijan zuben begira  
nagoke. Agur, neurioyek! Ez itxi burubok otsuak

gottuten! Ezta edurtokijetan illik lotuten! Neure txabolara irakasle-ikuskantza barrero etorriko danian, ikusi zaudazala, goiko eguzkijak zelaya argijau daula, ta atzeritarren aztamakillakaz euren ardi-jentzako esijak egin ebezan artzain zarrak lakuak ixan gura-zariela esango dautsot.

Neure mendira nua!... neure mendira nua! oldoztun nagolarik ikuskantzak esan eban augaz:

Erri gaxua!  
Jayo nintzan ni  
zeure il-orduban  
eltzeko?

Zegattik, ama,  
zeure semiok  
eztira itxarten  
ondiño?

Ama, ilgo zara  
motzen azpijan?  
Ilgo zara zeu  
betiko?

Itxaron, Ama,  
jarijon biot  
neure odol au  
lenago!

*(Amattutian, urrun-urrun baña gogotsu, «Itxarkundia» garaitz-abestija lez artzañak abes-tuta entzuten da. Antzestoki-euna astiro jasten da).*